



Atxarteko harrobia berreskuratzeko prozesua martxan ipini dute Abadiñon / 10

Berrizko Amaraune mendi lasterketak 300 parte hartzaile inguru batuko ditu zapatu honetan / 26



Ainara Otxotorenak dimisioa aurkeztu du Mañariko alkate legez eta Aitziber Areitiok hartuko du haren lekukoa / 8



BERRIZKO JAIK / 13



APATAKO JAIK / 17



EKITALDI KULTURALAK, HERRI TXIKIAK BIZIARAZTEKO

Kulturklik atariaren arabera, ia 758 kultur ekitaldi antolatu ziren Durangaldean. Hala ere, uza emankor horren atzean errealitate konplexua dago: kultura ez da berdina ailegatzen leku guztietara. Eskualdeko herri txikietan nabarmentzekoa da eragileek eta elkarteek herria biziartzeko egiten duten kultur lana. / 2-3

BEHERAPENAK!!

SKODA
ABADIÑO

ŠKODA AUTOETAN

BERRIA
edota
KM.0

10.000€
- raino

BEHERAPENEGIN



ŠKODA - GRUPO ORTASA
MATIENA AUZOA - MURUETA
Abadiño (Eroskiren aurrean)



Eskualdeko kultur sarea: bizia, baina asimetrikoa

Eusko Jaurlaritzaren Kulturklik atariaren esanetan, iaz 758 kultur ekitaldi antolatu ziren Durangaldean; hau da, jardunaldi bi egun bakoitzeko. Hala ere, uzta emankor horren atzean errealitate konplexua dago: kultura ez da berdin ailegatzen herri guztietara



Haizetara jaialdiaren edizio bat, Zornotzan. HAIZETARA.EUS

TOKIKOM / HIRUKA SARETZEN

Tokikom taldeko hedabideak eta ETB Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kultur ekitaldiei begira ipini dira Saretzen egitasmoaren ale berrian. Eskuragarri dauden datuen arabera, izan kontzertu, antzezlan, jaialdi, erakusketa, berbaldi ala bestelako egitasmo, hiru herrialdeek kultur programazio bizia dute urte osoan zehar. Musika da nagusi: kontzertuek programazio osoaren % 31,8 hartu zuten 2024an (6.342 ekitaldi); ondoren datoz antzerkia (% 21,3), ikus-entzunezko proiektzioak (% 11,8), berbaldiak (% 11,5), erakusketak (% 6,9) eta dantza emanaldiak (% 4,3). Gainerako eskaintza beste diziplina batzuek osatzen dute, hala nola azokek, tailerrek, lehiaketek eta ikastaroek. Hizkuntzari dagokionez, ekitaldien erdiak inguru euskaraz edo ele bitan egin ziren. Batez besteko hori, ostera, aldatu egiten da lurraldetik lurraldera eta eskualdetik eskualdera. Gipuzkoan, zazpi eskualdeetatik seik gaintitu zuten % 50eko langa, eta Debagoienan eta Urola Kostan programazioaren erdia baino gehiago euskara hutsean

izan zen. Araban, eskualde bakar bat ere ez zen proportzio horietara heldu; Aiaraldea hurbildu zen gehien (% 38,3 euskaraz, eta % 11,6 ele bitan). Bizkaian, zazpitik bostek gaintitu zuten muga hori, eta Durangaldea izan zen euskaraz gehien programatu zuen eskualdea, Markina-Ondarroagaz batera (euskaraz eta ele bitan egindako ekitaldiak % 58,4 izan ziren gure eskualdean).

Ekitaldirik gehienak hiru hiri-buruetan pilatzen dira: Bilbok, Donostiak eta Gasteizak programazioen % 48 hartu zituzten, eta urtean 3.000 ekitalditik gora antolatu zituzten, batez beste. Hiri-buruak kenduta, EAEko 36 udalerririk baino ez zuten gaintitu urtean 100 ekitaldi programatzeko langa. Tartean izan ziren eskualdeko herririk populatuenera-riko bi: Durango (334 ekitaldi 2024an) eta Zornotza (113). Eskualdeari dagokionez, iaz 758 kultur ekitaldi antolatu ziren Durangaldeko 13 udalerrietan, egun bakoitzeko bi. Edozelan ere, kontuan hartu behar da datu estatistikook Kulturklik atariaren erregistrokoak direla, eta bertan ez direla herri eragileen, gazte-

Garai: elkarteen lana herria hauspotzeko



2023ko Sagardo Eguna. TRUMOITTE

Metropolietaiko ekitaldi erraldioen aurrean, herri txikietako eragileek egundoko lana egiten dute kulturaren bitartez herria bizirik mantentzeko. Adibideetarik bat Garai da. Bertako Trumoitte elkarteak eta Nagusien elkarteak urteak daramatzate ekitaldiak antolatzen, baina azpimarratzekoa da azken urteotan batak eta besteak antolatutako ekintza kopuruak gora egin duela nabarmen.

"Gogoeta batetik etorri da dena. Izan ere, Garain ez daukagu eskolarik, ez enpresarik. Jendea lotara etortzen da hona, eta herritik kanpoko jende asko ere gure herrira etorri da bizitzera. Beraz,

beharrezko ikusten genuen ekintzak antolatzea haiek herriko bizimodura hurbiltzeko. Gure apustua hilabetearen behin, gutxienez, ekintza bat antolatzea da. Herria bizirik mantentzea da oinarria", azaldu du Trumoitteko Alazne Sarrigoitiak. Nagusien elkarteko kideak ere bat datoz. Argi dute ekitaldiak antolatzea ezinbestekoa dela herritarrek batzeko. "Lan handia egin dugu azken urteotan, izan ere, nagusientzat eskaintza atsegina prestatzea da gure helburua, eurak gustura egotea. Hileko azken eguneneko topaketak, bisita gidatuak, txangoak, Kultur Astea eta Kantulagun egitasmoa antolatzen ditugu, besteak beste", azaldu du nagusien elkarteko Virginia Ormaetxea bokalak. Gainera, lanketa horren emaitzak hartu-emanetan ere islatu direla igarri du. "Lehen, urrutiago-edo geunden nagusien artean. Orain, lotura gehiago egin dugulakoan nago", esan du.

Epe motzera begirako ekitaldi biren berri eman dute elkarte biek. Trumoitte elkarteak *Garai Uda Giroan* ekitaldi-sorta prestatzen dabilta. Uztailean egingo dute. Nagusiek beste txango bat dute zain. Uztailean, Hondarribiko alde zaharra ezagutzeko bisita gidatua egingo dute.

Izurtza: txikitasunaren xarma

Eskualdeko herririk txikiena dugu Izurtza, baina bertako eragileek ahalegin berezia egiten dute inora joaten ibili barik, herritarrek kultur ekitaldiei bertan gozatu dezaten. Asteburu hau da horren adibide, Izurtzan kultur aste betearen daude eta. Zapatuan, adibidez, Ganso & Cia taldeko Gorka Ganso eta Cecilia Paganini bertan izango dira clown saioa eskaintzen, plazan, euren Korrala sormen gunetik gertu. Eta bistakoa denez, eroso-eroso egongo dira, herri txikiaren xarma maite dute eta: "Dudarik barik, askoz ere gehiago gozatzen dugu emanaldiak herri txikietan edo gure munduko jendeak, antzerki talderen batek edo elkarteren batek, antolatzen dituenean. Ekitaldiak herri txikietan antolatzean, enpatia gehiago sortzen da, eta, gainera, burokrazia gutxiago dago antolatzaileen artean. Eremua kontuan izaten dute, adibidez, edo gerizperako aukerak eguzkiak gogor jotzen badu", esan du. Eta gaineratu du: "Jardunaldi kultural bat ezin da umeak aparkatzeko ekitaldi legez ulertu, eta, tamalez, askotan gertatzen da hori".

Hori dela eta, aipatzekoa da Korrala Sormen Guneko kideek Izurtzan antolatzen duten Gertufest jaialdia. 2022an egin zuten lehenengoz, eta urterik urte izandako arrakasta ikusita, eskaintza horri eutsiko



Gertufest jaialdia. GERTUFEST

diote aurtan ere. Santo Tomas parke inguruak adierazpide artistikoz betekotuzte herriko jaietan. "Antzerkia, zirkua, adierazpide punkiagok... gauzak egiteko gogo duen jendea batzean sinergiak sortzen dira, eta horri eskerrak loratzen dira Gertufesten moduko jaialdiak", azaldu du artistak. Izan ere, ez dira *sold out* kulturagaz edo ekitaldi masiboekin identifikatzen: "Gertufesten balio erantsia parkea da. Jendea gozatzera dator hona, parkean egotera, batzera. Parkea da protagonista, eta ezaugarri horri eutsiko diogu aurtan ere. Ez dugu ekitaldi masiboekin lehiatu gura".

txeen eta zirkuitu ofizialetatik kanpoko antolatzaileen ekitaldi guztiak islatzen. Konplikatua da datuok estatistiketan kuantifikatzea, baina merezi dute aipamena eta aitortza, asko dira-eta era boluntarioan, dirua irabazteko asmorik barik, kultur eskaintza kritikoa antolatzen dutenak.

Beraz, EAEko kultura sarea bizia, finkatua eta askotarikoa bada ere, baditu argi-ilunak. Oinarri sendoa eta ekitaldi andana programatzen den arren, eskaintza lurralderik lurralde orekatzea eta herri txikiei ikusgarritasuna ematea dira erronka, baita jaialdien iraunkortasuna bermatzea eta eskualde guztietan euskararen presentzia indartzea ere.

Hau guztia kontua hartuta, galdera argia da: Zer egin daiteke kultura pertsona guztiengana heltzeko baldintza berdinetan? Baliabideen zentralizazioa indartu ala udalerrri txikien protagonismoa bultzatzen duen deszentralizazioa lehenetsi? Eredua edozein dela ere, funtsezkoa da kultura eskubide bat dela ez ahaztea, eta, beraz, herritar guztientzat bermatuta egon behar du, non bizi diren kontuan hartu barik.

"Kultur kontsumo handia izan arren, badirudi ez garela asetzen"



Jon Urzelai kazetaria, Goierri Telebistari eskainitako elkarrizketan. GOIERRI

Jon Urzelai (Zumarraga, 1990) fisikaria, soziologoa eta musikazalea da. 2023an *Su festak* saiakera kaleratu zuen, XXI. mendeko Euskal Herriko musika jaialdiak hizpide. Lan horregaitik, 2024an, Euskadi Saria jaso zuen euskarazko saiakera kategorian. Goierri Telebistako lantaldeak elkarrizketa egin dio Saretzen egitasmoa tarteko, eta musika jaialdiez, gaztetxez, erakunde publikoen paperaz eta azkenaldian puri-purian dauden

FOMO edota *Sold out* joerez galdetu diote.

Ikuskizun handien sukarra izurritik hona handitu dela dio Urzelai, eta joera horren atzean elementu bat baino gehiago dagoela azaldu du: "Sare sozialen eragina dago batetik. Dena da oso azkarra, dena da handia, eta dena iraungitzen da azkar. Jende asko dago ekitaldi horretara begira momentu berean, han egon nahi du. Bestetik, kultura kontsumorako zerbait bilakatzen dabil, ikuskizun huts bat, nolabait

esateko, eta botere metaketa bat ere badago: zirkuitu handien barruan ez bazaude, tokirik ez duzula dirudi. Horrenbestez, badirudi derrigorrez sartu behar duzula gupil horretan". Egoera horren eraginez, besteak beste, "kontsumo bulimikoa" hedatu dela dio soziologoak: "[Kulturaren] kontsumo maila altua dugu, baina sozialki edo psikologikoki ezintasun bat dugula dirudi. Izan ere, nahikoa agerikoa da kontsumo horrek ez gaituela asetzen. Eta beharbada, ez dakit nongo talde erraldoi ikusi baino, gehiago ase gaitzake ondoko herriko musika talderen bat ikusteak, kalitatea sobran dago eta".

Herrigintza eta euskara

Urzelairen esanetan, administrazioak geroago eta gehiago dabilta kultura "termino industrialetan" ulertzen, eta horrek "kulturaren ikuspegia galtzen dabilela adierazten du". Horren eraginak herri

mugimenduetako eragileengan ere islatzen direla dio:

"Aurrekoan, irakurketa klubeko kide batek komentatzen zidan festa herrikoi gutxiago eta horiek antolatzeke jende gutxiago dagoela. Gero, baina, pabilioiak betetzen ditugu euskal festen erreferentziekin". Zer esan gura du horrek, euskarazko kontzertu masiboak euskarazko erreferenteak sortzeko baliagarri izan daitezkeela? Urzelai ez du horren argi: "Eztabaida dago. Baten batek esan dezake izar handiak behar ditugula, pabilioiak beteko dizkigutenak. Badago egia bat hor, baina iruditzen zait lehia horretan gaitzaile izan gaitzkeela. Adibidez, Taylor Swiften kontra ez dugu parekorik lortuko. Beharbada beste termino batzuetan sortu behar ditugu gure erreferenteak". Urzelairi egindako elkarrizeta osoa *gibb.eus* eta *anboto.org* atarietan dago.



Ikusi bideoa

Etxano: nortasunari eustea ardatz



Etxanoko erraldoien ekitaldia. PEDRO SAN ROMAN

Etxanoko Auzo Elkartek urteak daramatza herrigunea eta inguruak dinamizatzen, "herri-lanean", Pascual Uriarte elkarteak presidentek dioenez. "Izan ere, Amorebietak hartu du indarra, eta Etxano apur bat baztertuta geratu da. Gure helburua Etxanoko nortasuna mantentzea da, horixe da gure oinarria, sentimendu horri eustea. Eta helburu horretarako, hirigintzan, auzolanean eta kultur ekitaldien programazioan lan egiten dugu", azaldu du Uriartek. Azken horien artean, "Santa Ageda koplak abestera irteteko ohitura, Etxanoko jaietako ekitaldiak eta txangoak"

azpimarratu ditu presidentek. Hala ere, elkarteak badu urterik urte mimo handiz prestatzen duen jaialdi kultural nagusi bat: *Euskal Herriko doinuak* da hori. Azaro aldean egiten dute, hainbat egunetan zehar, eta askotariko ekitaldi kulturalak antolatzen dituzte ziklo beraren barruan, izan musika emanaldi, izan berbaldi edo ikastaro. Edizioetako batean sinesmenak eta mitologia hartu zituzten gaitzat; beste batean, dantzak eta trikiti doinuak ere aletu zituzten, orain urte batzuk. Eta, zelan ez, ezin ahaztu etxanotarrek Xabier Amuriza herrikideari 2023an egin zioten omenaldia ere. Aurtengo jaialdia ere prestatzen dabilzala iragarri du Uriartek.

Makrojaialdiei dagokienez, ez dutela ezelako inbidiarik sentitzen aitortu du elkarteak presidentek: "Argi dugu hori. Ekitaldi erraldoiak sortzen ibili barik, herria motibatzeke ekitaldiak behar ditugu, gauza txikiekin herritarren parte hartzea bultzatzen dituztenak. Izan ere, ekitaldi handiek diru asko behar dute, diruagaz ia dena lortu daiteke eta. Gurea, baina, beste zeozer da, gauza txikiekin herritarren parte hartzea eta komunitate sentimendua butzatzeke lana".

Mañaria: kultur eztanda betean

Kulturklik plataformako datuen arabera, eskualdeko herrien artean Mañaria da kultur ekitaldirik gehien aterpetzen duen herria, biztanleriari dagokionez. Datu basearen arabera, 1.000 biztanleko 24,3 ekitaldi programatu zituzten iaz; 13 ekitaldi, guztira. Gainera, horietan guztietan euskara izan zen nagusi: ekitaldien % 69,23 euskara hutsez programatu zituzten. Datuak testuinguruan ulertzeko, lagungarri izan daitezke udalaren 2022ko aurrekontu parte hartzaileak. Izan ere, urte hartako proiektuen artean ekitaldi kultural gehiago antolatzearen alde bozkatu zuten mañariarrek. Era berean, ezin da ahaztu Angurretak harrobi izateari utzi eta eszenatoki kultural izateko egindako bidea, ezta herriko elkarteek, Kafragak, besteak beste, egiten duten urte osoko lana. "Alboka Rolla rock jaialdia hirugarrenez antolatu dugu eta aipatzekoa da Sasiberezi pertsonaiagaz inauteriak indartzeko egindako apustua", azaldu du Paul Arana Kafraga elkarteak kideak. "Herri txikia gara eta zeozer dagoenean herritarrek plazan batzen gara, adin desberdinetakoak", gaineratu du. Era berean, Aranak aitortu du musika ekoizle handien proposamena jaso



Tio Teronen Semeak, Mañarian. MAÑARIKO UDALA

dutela Mañarian jaialdi handiren bat antolatzeke, baina baztertu egin dute. "Ez da hori gure helburua. Sarrera ordaindu beharko litzateke, eta beste ezaugarri batzuetako jaialdia antolatu. Ez dugu hori gura", argitu du. Aurrerantzean, ekitaldiak antolatzeke ohitura transmititzea gura dute. "15etik 20 urtera arteko gazte asko dago herrian, eta gogo dute gauzak egiteko. Modu natural batean egin gura dugu transmisio hori, hemendik urte batzuetara eurak izango dira-eta herrian dena mugituko dutenak", esan du Aranak.



Iker Txertudi kirol zinegotzia, Mireia Elkoroiribe alkatea eta Sara Ocea bigarren alkateordea. DURANGOKO UDALA

Eraldaketa integrala Tabirako instalazioetan

Durango Udalak bost milioi euroko inbertsioa egingo du Tabirako kirol instalazioetan, azpiegitura goitik behera eraldatzeko. Aldagelak berriztu eta erabilera anitzeko kantxa eta taberna-kafetegia atonduko dituzte. Hiru fase zehaztu dituzte

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak legegintzaldi honetako "proiekturik garrantzitsuenetarikoa eta estrategikoenetarikoa bat" aurkeztu du: Tabirako kirolgunearen "eraldaketa integrala". Udalak 5 milioi euroko inbertsioa egingo du al-

dagelak berrizteko, erabilera anitzeko kantxa egiteko eta taberna-kafetegia atontzeko. Udalak esan du "asmo handiko" eraldaketa dela, herriari "lehen mailako kirol azpiegiturak" eskaintzea ahalbidetuko duena. Eraldaketa atalik garrantzitsuenetari-

ko bat egiturazko arazoak dituzten egungo eraikinak botatzea izango da, hala nola igerileku estalia eta erabilera anitzeko kantxako aldagelak. Eraikinok itxi egingo dituzte irailean, instalazio berriei lekua egiteko. Era berean, futbol zelai berria ere

egingo dute, gaur egungoaren atzealdean. Futbolerako bakarrik barik, zelaia beste kirol zein ekitaldi batzuk hartzeko prestatu gura dute, eremu gehigarri bat tarteko. Taberna-kafetegiari dagokionez, zerbitzua urte osoan zehar eskaini ahal izatea gura du udalak.

Horretarako, hiru fasetan egingo dituzte eraberritze lanak. Irailtik urtea amaitu arte, txarto dauden eraikinak bota eta eraldaketa zentroa lekualdatuko dute. Bigarren atala aldagela berriak eta iragazte-gela eraikitzea izango da. Fase horretan kokatuko dituzte baita ere taberna-kafetegia eta uretako instalazioen funtzionaltasuna bermatzeko beharrezko azpiegitura eraikitzea. Kasu horretan, lanek irailetik 2026ko ekainera arteko tartea hartuko dute. Azkenik, hirugarren fasea dago, erabilera anitzeko kantxa eta futbol zelai berria eraikitzekoa. Fase horrek irailetik 2027 hasierara arteko epea hartuko du. Horrenbestez, kirolgunen berritua 2027ko hasierarako prest izatea gura du udalak.

Mireia Elkoroiribe alkateak esan duenez, udalak "Durangoren etorkizunagaz duen konpromiso irmoa islatzen du". Herriko kirol instalazioak hobetzeaz gainera, eremua kirola bultzatzeko "ardatza" ere izango dela esan du Elkoroiribek, baita Durangok Euskadiko kirol instalazioen "erreferente" izateko ere.

'Herria Pueblo' arte erakusketa zabalduko dute Otamotzenan

E.H. DURANGO

Otamotzena Auzogunean *Herria Pueblo* arte erakusketa zabalduko dute gaur arratsaldean, barikua, 18:30ean. Aurkezpen ekitaldian proiektuaren egileak, Luis Emilio Izagirre artista eta Gorabideren Errotarixueneko Eguneko zentroko kideak egongo dira. Amaieran luntxa izango dute.

Mugikortasun plan berria egiten hasi dira Durangon

E.H. DURANGO

Durango Udal Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan berria egiten hasi da, udalerriko irisgarritasunagazko, eraginkortasunagazko eta ingurumenagazko errespetua hobetzeko. Lehenengo eta behin, egungo egoera aztertuko dute, eta ingurune jasangarriago bat ahalbidetzeko oinarriak ipiniko dituzte gero. Udalak azaldu duenez, mugikortasun gaietan espezializatutako enpresa batek egingo ditu prozesuko aholkularitza lanak. Era berean, durangarrek euren mugikortasun ohiturak jakinarazteko galdetegia prestatu du udalak; *durango.eus* atarian egongo da martxan, domekara arte.

Puzgarriak, apar-festa eta paellak Muruetatorreko jaietan

Asteburuan auzoko jaiak ospatuko dituzte Durango Muruetatorren. Zapatuan hasiko dira, 11:00etan

Ekaitz Herrera DURANGO

Asteburu honetan, Muruetatorreko bizilagunek hitzordu berezia izango dute auzoko bizitza bultzatzeko, zapatuan eta domekan jaiak ospatuko dituzte-eta bertan. Umeentzako jolasekin eta puzgarriekin hasiko dituzte ekitaldiak, 11:00etan, eta Jaizalderen kalejira, pregoia eta paella txapelketa izango dituzte segidan. Iluntzean, mus txapelketa eta kontzertua izango dituzte. Domekan, apar-festa, txokolatada eta saltsa tailerra izango dituzte. Egitarauko xehetasunak *anboto.org* atarian daude.



Paella txapelketa Muruetatorren.

Kaletik Gaztetxera dinamika lantegi bat okupatu du Montorretan

Marmol-fabrika izandakoa okupatu dute, Argintza enpresa. Gaztetxea "antolaketakarako" erabiliko dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Kaletik Gaztetxera dinamika kideek beste ekintza bat egin dute Durangon gaztetxe egonkor bat sortzeko helburuz: Montorreta kaleko eraikin bat okupatu dute, Argintza lantegia, sasoi batean marmol-fabrika izandakoa. Gazteek ANBOTOr jakinarazi diotenez, lantegia "erabilerarik barik", egon da azken urteotan, eta gaztetxe bihurtuta "biziberritzea" eskainiko diote eraikinari.

"Aspaldidanik gabiltza aldarrikatzen Durangok gaztetxe bat behar duela. Ez eraikina izate



Gazteria, eraikinaren kanpoaldean.

hutsagaitik, gazteen proiektuak garatu ahal izateko tresna lez erabiltzeko baina. Izan ere, eraikinak berme eta baldintza batzuk eskaintzen dizkigu; adibidez, herrian beharrezkoak diren bestelako aisialdi eskaintza batzuk gauzatzeko", azaldu dute dinamika kideek. Alde horretatik, eraikin okupatu berria "gazteak antolatze, gazteak lehen lerrora eramate" eta beren "politizazioarako" tresna izatea gura dute, baita "kultur ekintzen doakotasuna eta gazteen interes artistikoa asetzea ahalbidetuko duen espazioa" izatea ere. Aurrerantzean, herriko gazte guztientzako moduko ekintzak antolatu gura dituzte. Bestalde, Kaletik Gaztetxera dinamika Udako Gazte Eguna ospatuko du zapatuan, Otamotzenan.



Kuir Eztandaren mobilizazioa, iazko maiatzaren 17an.

Kuir Eztandak "zuriketa arrosa" salatuko du Durangoko kaleetan

Kolektiboak manifestatzera deitu du. Ekainaren 26an mobilizatuko dira, 19:00etan, Andra Maritik hasita

Ekaitz Herrera DURANGO

Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Kuir Eztanda kolektiboko kideek manifestazioa antolatu dute Durangon. Aurten, "inoiz baino gehiago" salatuko dute "politika instituzionalek eta enpresa kapitalistek egindako zuriketa arrosa", joera horrek "harrotasun kuirraren eguna merkantilizatu eta despolitizatu" egiten duela iritzita. Era berean, ekainaren 28ko aldarrien jatorria gogoratuko dute, 1969ko egun hura "indarkeria polizialaren aurkako" eta "estatuen botere eta kontrol mekanismoen aurkako

iraultza" izan zelakoan, eta indarkeria hori "gaur egun ere presente" dagoelako. Bestalde, "mugimendu trans-baztertzailen gorakada" ere seinatuko dute, eta gogoan izango dituzte "indarkeria matxistagaitik eraildako eta erasoak jasandako emakumeak, baita zisheteropatriarkatuak jazarritako sexu-genero disidentziak" ere. Azkenik, "zapalkuntza kolonialak" kritikatu eta elkartasuna adieraziko diote Palestinari.

Kuir Eztandak horiek guzti horiek eta gehiago salatuko ditu ekainaren 26an. Manifestazioa Andra Maritik irtengo da, 19:00etan.

"Trabak ipintzeari uzteko" deia Durangoko Udalari

Durangoko txosna batzordeko eragileek jai herrikoiak antolatzeko "geroago eta oztopo gehiago" dutela adierazi, eta udala seinatatu dute, horrek "gustuko ez dituen eragile sozialei eraso egin" dielakoan. "Antolatzeko eskubidea errespetatzea" eskatu diote

Ekaitz Herrera DURANGO

Txosna batzordeko kideek ildo horretan kokatu dituzte, hain zuzen ere, "ordutegi murriztzak, traba burokratiko eta teknikoak, beste ekimen batzuekin alderatuz diru laguntza xumea ematea, neurri eta muga absurdoak, eta propaganda politikoa egiteagaitiko isunak". Horiek guzti horiek "arrazoi teknikoak" izatetik "urruti" daudela esan dute, eta auziaren oinarrian "erabaki politikoak" daudela azpimarratu: "Jai herrikoien eta eskubide politikoaren aurkako erabakiak".

Txosnek defendatu dutenez, urte asko daramate izaera "herrikoia, euskalduna, feminista, askea, inklusiboa, ingurumengaz errespetuzkoa eta solidarioa" duten jai ekitaldiak antolatzen. Hori dela eta, euren "jarduna errazteko eskatu diote udalari, eta arrazoi tekniko eta juridikoen aitzakiapean trabak ipintzeari uzteko". Azken batean, "antolatzeko eskubidea errespetatu eta jai herrikoiei erasorik ez egitea". Era berean, batzordeko 14 era-



Txosnek joan zen egunean egindako agerraldia.

gileek txosnen funtzioa azpimarratu dute: "Durangoko euskalgintza, mugimendu feminista, kirol elkarteak, talde internazionalistak, gazte eragileak, aniztasun funtzionala duten

familien elkarteak... aktibo izateko ezinbestekoa da txosnen bitartez lortzen den finantziarioa, eta diru iturri hori mugatzeak eragileen ekarpena mugatzen du", ohartarazi dute.

Argazki lehiaketa Durangoko txokorik gogokoena erabakitzeke

Udalak 'Durangoko nire txokorik gogokoena' lehiaketa ipini du martxan, Instagram bidez lehiatzeko egitasmoa

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak *Durangoko nire txokorik gogokoena* lehiaketa ipini du martxan, Instagrameko argazkien bitartez herriaren edertasuna sustatzeko txapelketa. Udal arduradunek azaldu dutenez, parte hartzaileek herriko edozein txokotan atera ditzakete argazkiak, edozein motatakoak: "Parke batean, orain dela gutxi ezagututako lekuren batean, ilunabarra...". Lehiakideek Instagram sare sozialeko profil pertsonala erabili beharko dute. Hau da: lehiakideek gustuko argazkia hartu eta sare

sozial horretan argitaratu beharko dute lau traola idatzita (#mirinconfavorito #mirinconfavoritodedurango #DurangoBizkaia #DurangokoTxokorikPolitena) eta @durangobizkaia kontua aipatuta. Azkenik, izena emateko inprimakia bete beharko dute (Durangoko Udalaren atari digitaletik sartu daiteke bertara). Lehiakide bakoitzak gura duen beste argazkigaz parte hartu ahal izango du. Argazkiak publikatzeko epea uztailaren 18ra arte dago zabalik. 200 euroko eta 100 euroko sariak daude jokoan.

Europako Mendietako istripuan hil zirenak gogoratu dituzte

38 urte bete dira eskualdeko lau herritar helikoptero istripu batean hil zirenetik. Domekan gogoratu zituzten



Elorrioko eta Garaiko herritar batzuk oroimen ekitaldian izan ziren. GONTZAL SARRIGOITIA

Ekaitz Herrera GARAI / ELORRIO

Ekainaren 12an 38 urte bete ziren eskualdeko lau herritar helikoptero istripu batean hil zirenetik, Covid-19aren ondorioz. Gogoratu zituzten. Domekan gogoratu zituzten. Hango mendietan galdutako ume bat topatzeko lanetan zebiltzan, baina helikopteroak Sohornin tontorra jo zuen ustekabean, eta lakuen ondoko errepidera jausi zen. Ezbeharrean lau lagun hil ziren: hiru elorriar eta garaitar bat. Harrezkero, Garaiko eta Elorrioko herritar batzuk eta Euskadiko eta Asturiasko Erreskate Txakurrun Unitateko kideak urtero-urtero joaten dira istripua gertatu zen lekura, han hil zirenak omentzera. Aurtengo oroimen ekitaldia domekan egin zuten. Lore eskaintza eta minutuko isilunea egin zituzten.

Espazio Publikoaren Ordenantzaren aurkako errekurtsua, atzera

Zornotzako udal gobernu taldeak Espazio Publikoaren Ordenantza berria onartu zuen iazko uztailan; oraintsu, EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du EH Bilduk ipini zion errekurtsua; osoko bilkuran onarturiko ordenantza jo du legezkotzat

A. M. ZORNOTZA

Iazko uztailan, Zornotzako udal gobernu osatzen duten EAJk eta PSEk Espazio Publikoaren Ordenantza berria onartu zuten. EH Bilduk errekurtsua ipini zuen, herritarren parte hartze-ko eskubidea urratu zelakoan eta genero eraginari buruzko txostena ez zelako aurkeztu. EAEko Auzitegi Nagusiak oraintsu jakinarazi du errekurtsua atzera bota duela, eta, beraz, ordenantza legezkota dela. Auzitegiaren esanetan, udalak aurretiazko kontsulta bat iragarri zuen udalaren iragarki taulan urtarilaren 16tik otsailaren 6ra bitartean, eta webgunean ere publikatu zuen; horrez gainera, udalak auzokideekin, ostalaritzako 57 profesional gaz eta kaleko saltzaileen elkarteagaz ere berba egin zuela nabarmendu du. Genero txostenari buruz, behin betiko onespina jaso aurretik entregatu zela esan du epaitegiak, eta hori horrela izanik, "errekurtsuaren arrazoi hori" ezin dutela onartu.



Zornotza (artxiboko irudia).

Bestalde, EH Bilduren berbetan, herritarren parte hartzea ez da bermatzen iragarkiak iragarki oholetan ipinita bakarrik; hala ere, ordenantza legezkota dela onartu du, baina ez "onar-garria". "Gaitzespen juridiko

batek ez du nahitaez egitea zilegi bihurtzen; izan ere, toki administrazioek gardentasunaren bermatzaile izan behar dute, eta herritarren parte hartzerako bide zuzena", azaldu du koalizio subiranistak ohar baten bitartez.



Ainhoa Salterain, azalpenak ematen.

Agintaldi planaren % 15 osatuta dagoela nabarmendu dute

Ainhoa Salterainek legegintzaldiaren erdia egin du alkate, "erronkaz eta ikaskuntzez" beteriko urte bi

Aritz Maldonado ZORNOTZA


Legegintzaldi erdia igarota, Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak urte bi hauen balorazioa egin du prentsaurrean. "Legegintzaldi honetarako Agintaldi Planaren % 78 martxan edo osatuta dago, dokumentuan jasotako 74 ekintzetariko bakar bat ere alde batera utzi barik; oraindino gehiago, ekintzen % 15 osatuta daude jada", azpimarratu du. Irigarritasunean, hirigintzan eta gizarte zerbitzuetan egindako aurrerapenak nabarmendu ditu Salterainek. "Autokarabanan aparkaleku

berria, Gudari kalea oinezkoentzat egitea, Larrea ikastetxe-ko patioa hobetzea, gizarte zerbitzuen katalogoa, Berdintasun Plan berria edo Zubikurtze, Zubipunte eta Zubizabala arteko oinezkoen ibilbidea aipatu ditzakegu. Oraindino asko dago egiteko, eta konpromiso eta gertutasun beragaz jarraituko dugu lanean", gehitu du.

Bestalde, gazteen parte hartzeagaz batera martxan duten Zuok ekimena ere nabarmendu du Salterain alkateak. Ekimenean 235 gazte zornotzarrek izena eman dutela azaldu du.

'JaiTaKolare' lanak iragarriko ditu Elorrioko Ferixa Nausikoak

Sabina Aizpuru Agirre elorriarrak egin du aurtengo Ferixa Nausikoak iragarriko dituen kartela



Aurkeztutako lanak Iturri daude ikusgai.

A. M. ELORRIO

Sabina Aizpuru Agirreraren 'JaiTaKolare' lanak iragarriko ditu 2025eko Elorrioko Ferixa Nausikoak. Epaimahaiko kideek ia aho batez aukeratu dute Aizpuren lana, Elorrioko Udalak ohar bidez azaldukoaren arabera. Lanaren "dotorezia, garbitasuna eta egitaraua apaintzeko elementu aproposak edukitzea" nabarmendu dute. Horrez gainera, epaimahaikideek kartel lehiaketan egon den parte hartzea, lanen kalitatea eta proposamenetan genero ikuspuntua kontuan hartzea azpimarratu dute. Aurretik, herritarrek gustukoaren zein lan izan duten bozkatu ahal izan dute; guztira, 444 boto jaso dira kultur etxean, eta 208 udalaren webgunean. Elorrioko Ferixa Nausikoak irailaren 6tik 14ra bitartean izango dira.

Berrizko Udala ohiko izapideak digitalizatu guran dabil

Berrizko Udalak digitalizazioan eta gardentasunean sakontzen jarraitzen du, herritarrei izapideak errazteko

A. M. BERRIZ

Herritarrek udaletxera joan-etorrian ibili ez daitezen, Berrizko Udalak digitalizazioaren aldeko apustua "lehenesten" jarraitzen du. "Beharrezko izapideak ordengailu edo telefono batetik erraz eta eroso egiteko aukera eskaini gura diegu herritarrei; adibidez, tokiko administrazioak kudeatutako ordainagiriekin egin daitezkeen moduan", azaldu du udalak. Horrela, ordainagiri horiek udalaren webgunean egoitza elektronikokoaren bitartez egin daitezkeela azaldu du. "Orain errazagoa

da ordainketa bat egitea edo ordaintzeko dauden ordainagiriaren edo horien egoeraren jarraipena egitea; edozein lekutatik egin daiteke, eta edozein ordutan", argitu du. Beraz, udalak tresna horiek erabiltzera dei egin die herritarrei, udal tramiteak errazteko. "Zalantzarik izanez gero, Herritarren Arreta Zerbitzura joan daitezke. Bertan, egunerokoan lagundu diezaiaketen eragiketa horiek kudeatzeko beharrezko diren urratsak egiten lagunduko diegu herritarrei", gaineratu du udalak.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea



Aitziar Areitio eta Ainara Otxotorena. EH BILDU BIZKAIA

Areitioak hartuko du Otxotorenen lekukoa

Sei urtez Mañariko alkatea izan eta gero, Ainara Otxotorenak dimisioa aurkeztu du asteon, "arrazoi pertsonalengaitik". Otxotorenen ordeza, EH Bilduko udal taldeak Aitziar Areitio Iriondo, egungo alkateordea, proposatuko du alkate kargurako

Joseba Derteano MAÑARIA

Ainara Otxotorena Iriartek, azken sei urteetan EH Bilduko Mañariko alkate izan denak, dimisioa aurkeztu du asteon modu formalean alkate legez. "Karguari uko egitea alkatearen erabaki pertsonala da", zehaztu du EH Bilduk ohar batean. Eguazten goizean, Otxotorenak gutun zabal bat helarazi zien Mañariko herritarrei. "Osasun arazoek eta bestelako arrazoi pertsonalek nabarmen eragin diete alkate lanak behar dituen arretari eta dedikazioari", azaldu zuen gutunean.

Otxotorenen dimisioa ekainaren 23an gauzatuko da, Mañarian aurreikusitako osoko bilkuran. Legeak aurreikusten duen moduan, alkate berria ekainaren 27an egingo den hurrengo osoko bilkuran aukeratuko dute. EH Bilduko udal taldeak Aitziar Areitio Iriondo, egungo alkateordea, proposatuko du Ainara Otxotorenen ordeza, oharraz zehazten duenez.

"Esker oneko" gutuna

Eguaztenean Mañarian buzoirik buzo zabalduriko gutunean,

Otxotorenak bere dimisioaren arrazoiak eman zituen eta eskerak eman zizkien herritarrei. "Eskerrik beroenak eman gura dizkizuet urte hauetan guztietan nigan izandako konfiantzagaitik. Ohore handia izan da Mañariaren zerbitzura egotea eta zuekin batera gure herriko bizi kalitatea hobetzeko lan egitea", jasotzen du gutunak. Beragaz lan egin duten gobernu taldeko kideei ere zuzendu zitzaion. "Eskerrak eman gura dizkiet bereziki nire gobernu taldeari eta udaleko langile guztiei; haien lanik barik ezinezkoa izango zen lortutakoa lortzea".

EH Bilduk, bere partetik, urte hauetan guztietan egindako lana eskertu dio Otxotorenenari. "Zinez eskertu gura dugu Bizkaiko eta Mañariko EH Bildukook Ainara Otxotorena Iriartek urte hauetan guztietan egindako lan handia, beti ere Mañariaren zerbitzura, bertako bizilagunen zerbitzura, une oro denen bizi kalitatea hobetzeko helburuagaz. Bada-kigu zein zaila izan zaion bere lana egitea bere egoera pertsonalagaitik, eta, horregatik, onena opa gura diogu", adierazi dute oharrean.



Atxondoko igerilekua.

Atxondoko igerilekuak astelehenean hasiko du udako denboraldia

Udako denboraldia haster da Atxondoko igerilekuan. Astelehenean zabalduko ditu ateak, ekainak 23, eta irailaren 7ra arte egongo da zabalik. Astelehenetik domekara egongo da zabalik, ordutegi honetan: 11:00etatik 20:00etara. Bonuei eta sarrerei buruzko informazioa udaleko webgunean (www.atxondo.eus) eskuratu daiteke, 'igerilekuak' izeneko atalean.

Gaur hasiko dituzte Axpeko San Joan jaiak

Axpen San Joan jaietan murgilduko dira gaur. Jaietako txopoa jaso eta gero, Meison eta Garratz taldeen eta DJ Bullen kontzertuak egongo dira. Bihar, Bada Giro erromeria taldeak joko du. Ekainaren 23an, sua piztu eta askotariko ekintzak egingo dituzte

J.D. ATXONDO

Axpeko San Joan jaiak gaur hasiko dira. Hasteko, aurten lehenengoz antolatuta duten Atxondoko Pelota Goxua Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte, 17:30ean. Ondoren, txopoa jasoko dute eta 22:00etan Meison eta Garratz taldeen eta DJ Bullen kontzertuak hasiko dira. Zapatua mozorro eguna da. 'Euskal jaiak' da aurten moztortzeko gaia. Goizean tortilla eta bakailao txapelketak egingo dituzte, eta Bada Giro taldeak erromeria joko du iluntzean.

Urtero legez, jaietako unerik berezietariko bat San Joan bezpera izango da, ekainaren

23a. Iluntzean sua piztu eta auzotarrek txokolatea hartuko dute. Aurretik, 17:00etan, umeek Zintzilik Emozioen Laborategiko

abentura kirolekin gozatu ahal izango dute. Eta gura duten denentzat saiheski pintxoak egongo dira txosnan.



Gaur arratsaldean jasoko dute jaietako txopoa.



'Welcome & Sorry' antzezlan. GANSO & CIA

Musika, antzerkia eta bertsoak asteburuko menua izurtzan

Izurtzako Kultur Asteak aurrera jarraitzen du. Gaur, 19:00etan, Pelax musikariak kontzertua emango du Herriko Tabernako terrazan. Zapatuan, plazan, Ganso & Cia konpainiaren antzezlanagaz gozatzeko aukera egongo da, besteak beste. 19:00etan hasiko da. Domekan, Karmele Abaituak, Ixone Asategik eta Naroa Jaiok bertsoetan egingo dute udaletxeko balkoitik, 13:00etan.

UDAKO

11. ARGATZKI
LEHIAKETA
2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK
ONENA

DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKIRIK
ONENA

LASTER INFORMAZIO GEHIAGO

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

EKAINEKO ZOZKETAK



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Martxan da Atxarteko harrobiak birnaturalizatzeko prozesua

Udalak eta EHuko Ekopol ikerketa taldeak ipini dute martxan prozesua. Eguaztenean berbaldia egingo dute Txanportan



Patxo Campo, Edurne Maguregi, Mikel Urrutia, Nerea Zuluaga eta Iñaki Barcena.

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak eta EHuko Ekopol ikerketa taldeak 1996az geroztik etenda dauden Atxarteko harrobiak berreskuratzeko

prozesuari ekin diote. "Sasoi hartako gobernu taldeak ingurunea berreskuratzeko eskatu behar zion harrobia enpresa ustiatzaileari, derrigortu egin behar zuten,

baina ez zuten hori egin. Konpetentzia udalarena da eta badakigun arren kostua udalak asumitu dezakeen baino handiagoa dela, EHugaz batera hasiko dugu prozesu hau", azaldu du Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak. Udalak 40.000 euro erabiliko ditu prozesu honetarako, eta baita beharrezko azpiegitura ere. Ikerketak urtebeteko iraupena izango du eta Ekopol taldeko 5 irakasle eta bekadun bi arduratuko dira. Bideragarritasun teknikoak, juridikoak eta ekonomikoak aztertuko dituzte eta Atxartera bertaratzen diren eskalatzaile eta mendizaleekin elkarlanean arituko direla esan dute. "Zulo industrial bi ditugu Atxarten, eta Durangaldeko leku izugarri polit hau birnaturalizatzeara da gure asmoa", esan du Iñaki Barcena Ekopoleko kideak.

Lehenengo pausoa eguaztenean emango dute mahai-inguru bat eginda Txanportan, 19:00etan. Peio Lozano eta Laura Damas geologoen eta Juan Carlos Lopez arkeologoa egongo dira bertan.



Jose Luis Navarro, Edurne Maguregi, Mikel Urrutia eta Naiara Bildosola.

"Legegintzaldi amaieran HAP0a desblokeatuta izatea da helburua"

M.Z. ABADIÑO

Asteon, EH Bilduk eta Abadiñoko Independenteei osatzen duen gobernu taldeak legegintzaldi erdiko balorazioa egin du. "Urte intentso bi izan dira, eta herritarren beharrianak erdigunean ipinita herriarentzat garrantzitsuak diren gai estrategikoak jorratu ditugu", azaldu du Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak. Prentsaurrekoan azaldu dutenez, "herritarrek eta gardentasuna" gidalek hartuta aritu dira lanean urte bi hauetan, eta etorkizunean ere horrela jarraituko dutela azaldu dute.

Bestalde, lanean jarraitzeko eta Abadiñoko beharrianak detektatzeko asmoz, herritarrekin batera diagnostiko bat egingo dutela azaldu dute.

Horrez gainera, legegintzaldiko helbururik garrantzitsuenak zein den galdetuta, "Hiri Antolamendurako Plan Orokorra desblokeatzea" dela adierazi dute; plana paralizatuta dago 2015az geroztik. "Ezer gertatzen ez bada, egingarria izan daiteke", gaineratu du Urrutiak.

Goita auzoan dena prest sanjoanak ospatzeko

M.Z. MALLABIA

Gaur, ekainak 20, txopoa jasota emango diete hasiera sanjoanei Mallabiko Goita auzoan. Auzotarrek egitarau zabala antolatu dute. Gaur gauean, esaterako, bertso afaria eta trikitilariak egongo dira. Bihar, tortilla lehia-keta, trikitilariak eta DJ Marrazo, beste beste. Meza, dantzariak, bolo txapelketa San Joan sua eta auzokoentzako afari-merienda ere egongo dira, beste hainbat ekintzaren artean.



lazko sanjoanak. VALENTIN MUGARZA

Oromiño erreken ezkeraldeko ertza egokitu dute lurretan

Fauste auzoan, harri-lubeta jausi ondoren gauzatu ditu lanak Uraren Agentziak, 28.154 euroko aurrekontuagaz

A.B. IURRETA

Uraren Euskal Agentziak Oromiño erreken ezkerreko ertzaren zati bat berregokitu du, ibaiertzeko higadura geldiarazteko. Iurretako Fauste auzoan, harri-lubetako harri batzuk jausi dira, eta horren eraginez higatutako ibaiertza egonkortu dute. Horretarako, tokiko landaredia ere landatu dute. 28.154 euroko aurrekontua izan dute lanak gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez.

Ibaiertza babesten duten bolumen handiko harriak dira harri-lubetak, ibaiertzak okupatuta dauden tarteetan eta erriberako landaredia nahikoa ez dagoen ibaiertzeko zatietan ipintzen direnak. Bada, harri-lubetaren zati bat jaustean, erre-kako urak ertzak higatzen ditu modu naturalean, urertzeko landaretza finkatu artean. Kal-



Oromiño erreka. EUSKO JAURLARITZA

tetutako ibaiertzean landaredia egonkortzea eta lehengoratztea izan da Ura agentziak egindako lanen helburua. Aste bian egin dituzte lanak.

Proiektuak Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren finantziatzea izan du.

Kontadore digitalak gehituko dituzte Otxandioko ur sarean

Udalak 15.000 euro erabiliko ditu horretarako. Ur hornidura sarearen efizientzia "hobetzea" da helburua

A.Basauri OTXANDIO

Otxandion 15.000 euro erabiliko dituzte ur hornidura sarearen digitalizazioan pausoak ematen jarraitzeko. Kontadore digitalak ipiniko dituzte sarearen auzoetako adarretan, eta, sektoretan banatuta, herrigunean ere bai. Hartara, ur hornidura sarearen "zatirik handiena" digitalizatuta izango dute. "Horrela, ur sarea une oro zelan dagoen jakiteko aukera izango dugu", nabarmendu du Egoitz Garmendia alkateak. Udalak kudeatzen du ur sarea Otxandion.

Ur hornidura sarearen efizientzia hobetzea, horixe du helburu udalak, eta, horretarako, hainbat neurri hartu dituzte azken urteetan: ur-ihesak kontrolatzeko kanpainak egin dituzte eta kontagailu digitalak ipini dituzte sarearen puntu zehatz batzuetan. "Astiro-astiro pauso gehiago

ematen gabilta, sarearen kontrol geroago eta handiagoa izateko. Sarea oso efikaza da. Oso ur gutxi galtzen dugu iturburutik hartu eta kontsumitzen dugunera arte. Efizientzia hori hobetzen jarraitzea da helburua", esan du alkateak.

Udalak momentuan bertan du jakin beharreko informazioa: ur kontsumoarena, presio diferentziala, ur-ihesena eta abarrena. "Ur-ihesen bat badago, hasieratik antzeman dezakegu non izan daitekeen. Gainera, kontsumoaren inguruko informazioa izanda, iturburutik zenbat ur hartzen den erregulatu daiteke. Garrantzitsua da emari ekologikoa mantentzea", nabarmendu du Garmendiak. "Uraren zikloa askoz ere efizienteagoa bihurtu zenezake, eta behar duzun ura hartu bakarrik, iturburuan ur gehiago utzita", gaineratu du.

"Androk bihotz gehiago dugu gobernatzerakoan"

BLANCA ONAINDIA GARITAONANDIA ZALDIBARKO ALKATE OHIA

Zaldibarko Udalak Blanca Onaindia omendu zuen joan zen zapatuan, herriko lehenengo emakume alkatea. Omenduak herriko emakumeekin partekatu du aitortza

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Orain 30 urte zabaldu bidea eskertzeko, Zaldibarko Udalak omenaldi hunkigarria egin zion Blanca Onaindiari joan zen zapatuan. 1995-1999 artean izan zen herriko alkate, EAJren banderapean, eta bidea zabaldu zien ondorengo arduradunei. Eneritz Azpitarte egungo alkateak ohorezko aginte makila eskaini zion Onaindiari. Han baturikoe txalo zaparrada batez jaso zuten aitortza. Ekitaldira ez zuten hutsik egin Zaldibarko koralak, dantzariak eta txistulariak. ANBOTOk omenaldia amaitu berrian elkarriketatu zuen Onaindia.

Zelan jaso duzu aitortza?

Ikaratuta nago; ez nuen uste omenaldira hainbeste herritar joango zenik. Oso-oso pozik eta eskertuta nago. Izan ere, horrelakoa da gure herria. Halakoxea da Zaldibar.

Zelakoa da, ba, herria?

Udalean alkate egon nintzenean, ez ziren hain sasoi onak izan. Ez zegoen dirurik, aurretik lan asko egin ziren eta. Akorduan daukat herriko elkarte eta eragile guztiengana joan nintzela oso diru gutxi geneukala esatera. Gastuak eta halakoak zorrotz zaindu behar genituela komentatu nien. Eta inortxok ere ez



Blanca Onaindia.

zuen trabarik ipini. Denak elkarlanerako prest agertu ziren. Eskertzeko modukoa dela iruditzen zait. Legealdi bi egin nituen udalean. 1991-1995 lege-gintzaldia zinegotzi legez; eta 1995-1999 aroa, alkate legez. Oso esperientzia positiboa izan ziren urte haiek.

Eta hara non, zu izan zinen Zaldibarko lehenengo emakume alkatea. Halantxik tokatu zitzaidan. Nik ez nion aparteko garrantzirik eman. Gainera, eskualdean beste emakume alkate bi ere bazenuden garai hartan: Rosa Mari

Ostogain Berrizen, eta Pilar Ardanza Durangon. Neure artean pentsatu nuen: zergaitik ez? Eta halantxik, erabakiagaz aurrera egin nuen. Gainera, herria eza-gutzen nuen, gazte-gaztetatik dantzan eta koralean ibilitakoa naizelako.

Omenaldiko hitz hartzea erabakitzea gatz egin zaizu?

Ez da gaxa izan. Batetik, argi neukan familia aipatu gura nuela, beharbada, sekula ez ditut-eta behar den beste eskertu. Izan ere, zortzi urte haietan ordu asko egin nuen etxetik kanpora. Bestetik, desio bat plazaratu dut. Niri egindako omenaldia Zaldibarko emakume guztiekin partekatu gura dut. Uste dut emakumeok inportantzia handia dugula herrietako egunerokotasunean. Gauzak egiteko beste era bat dugula esango nuke, beste pentsamendu bat, gobernatzeko beste era bat. Gaur egun gauzak aldatu egingo ziren, baina sasoi hartan halantxik ikusten nuen. Bihotz gehiagogaz jarduten genuela esaten nuen orduan.

Zelan ospatuko duzu gaurko omenaldia?

Lagunekin batu eta pintxo bat eta pote bat hartzera joango naiz. Izan ere, zer hobeto ospatzea baino?

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#SALDU ENAK

1^o EHUN ZALDI TROSTAN
Ainhoa Urien
Elkar

2^o AMORANTE FRANTSESA
Miren Agur Meabe
Susar

3^o PLEIBAK
Miren Amuriza
Susar

4^o MAITASUN KAPITALA
Karmele Jaio
Elkar

5^o PAZIENTE ISILA
Alex Michaelides
Erein

Haizetara kale musika jaialdiak asteburua girotuko du Zornotzan

Nazioarteko zortzi taldek parte hartuko dute lehiaketan

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Kaleko musika oinarri duen XVIII. Fanfarreen, Banden eta Kale Musikaren Haizetara jaialdiak 11 herrialdetako 37 talde

batuko ditu asteburuan, Zornotzan. Proposamenak Frantzia, Italia, Portugal, Mexiko, Suitza, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Herbehereak, Benin, Errusia

eta Espainiatik datoz. Antolatzailerik zortzi banda hautatu dituzte, estatu zein nazioarte mailakoak eta musika estilo desberdinekoak: Undertow Brass Band (AEB), The Brass Funkeys (Erresuma Batua), La Revuelta (Suitza), Zygos Brass Band (Frantzia), Los Fugitivos (Ciudad Real, Espainia), Suck Da Head (Frantzia), Goxo Txaranga (Iruñea, Nafarroa) eta Cornelius (Frantzia). Egitarau osoa anboto.org webgunean ikusgai dago.



Haizetara jaialdiaren edizio bat.

DURANGALDEA ASTEON

Emakumezkoen frontenis txapelketak Mallabian

MALLABIA Asteburuan emakumezkoen frontenis txapelketak jokatu dituzte Mallabian. Zapatuan binakako txapelketa jokatu dute. Eskualdekako txapelketa 09:00etan hasiko da, eta orokorra 11:00etan. Domekan bakarkako txapelketa jokatu dute. Eskualdekakoa 09:30ean izango da, eta orokorra ondoren.



Aldundiko, udaleko eta dendak baiko ordezkariak aurkezpenean.

Negozioen transmisioan laguntzeko programa

DURANGO *Negozion* Bizkaiko Foru Aldundiaren programa da, herrietako negozioen eskualdatzea eta transmisioa erraztea helburu duena. Teresa Laespada diputatuaren berbetan, "negozio errentagarriak izaten dira, baina askotan ez dute nork hartu, eta gure sare ekonomikoko eta garapen ekonomikoko zati direnez gero, horien pertsonak zabalik mantentzen ahalegindu gura dugu". Interesdunek negozion.eus atarian zehazten dituzte eskualdatzea gura dituzten negozioak.



DURANGOKO UDALA

Julene Azpeitia literatura sariak banatu dituzte

DURANGO Domekan, ekainak 15, Julene Azpeitia literatur lehiaketako sari banaketa egin zuten. Durangoko Arte eta Historia museoa egin zuten sari banaketa ekitaldia. Beñat Igarza kazetariak gidatu zuen, eta bertan Imanol Larrinaga artista omendu zuten, erretiroa hartu duelako.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN
CARLOS GARCIA
PP

Durangoko anbulantzia medikalizatua, orain

Durangon, ospitale bat behar dugu gure bizilagunen eta eskualde osoaren beharrianak asetzeko.

Baina ospitale hau trenbidearen lurretan edo Ezkurditik gertu dauden trenbidearen eraikin zaharretan eraiki arte, premiazkoa da Durangori eta gure eskualdeari, Durangalde osoari, zerbitzua ematen dion anbulantziak medikua izatea.

"EKAINEN BILKURAN BERRIRO ERE EHINGO DIOT, ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA IZAN DEZAGUN"

Aspaldiko eskaera bat da, Osakidetza ez diona erantzun, eta duela gutxi berriro eskatu genion udalari udal osoko bilkuran aurkeztu nuen mozio baten bitartez, eta onartu egin zen.

Horregatik, udaletik jarraitu egin behar dugu eskaera egiten Osakidetza, behar-beharrezkoa delako herritarrentzat.

Horregatik, Durangon ekainean izango dugun osoko bilkuran berriro ere ekingo diot gaiari, gure anbulantzia medikalizatua izan dezagun behingoz.



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.




LAGUNTZAILEAK

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

BERRIZKO JAIK 2025

SAN PEDRO ETA SANTA ISABEL

JAIK



BERRIZ 2025



BERRIZKO UDALA
Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus

**Berrizko Udalak
jai zoriontsuak
opa dautsuez**

BERRIZ JAIXETAN BE
BERDINTASUNEAN!!



BERRIZKO JAIK

EKAINAK 27

19:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA, UDAL KONTSEILUA. Udaletxean.

Ondoren, jaietako KARTEL LEHIAKETAKO sari banaketa udaletxean.
Ondoren, urtero legez, **SARDINA-JANA.**

20:00 DONIEN ATXA eta DANTZARI DANTZA entsegua. Elizondo plazan.

21:30 LUHARTZ taldeagaz erromeria. Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: OLD TIME SPOOKS + GAILU. Txosnagunean

EKAINAK 28

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo plazan.

11:00 UMEENTZAKO HERRI KIROLAK. Elizondo plazan.

12:00 HERRI KIROLAK TXAPELKETA OFIZIALA. Elizondo plazan.

14:00 PAELLA LEHIAKETA udaletxeko lorategian.

15:00 HERRI BAZKARIA. Ondoren, bingo musikatua. Txosnagunean.
Txosna batzordeak antolatuta.

18:00 MOZORROEN JAITSIERA. Txosna batzordeak antolatuta.

18:30 OIHAN VEGA diskofesta. Elizondo plazan.

19:00 Herriko IGEL TXAPELKETA. Izen ematea 18:30 - 19:00.

22:00 OIHAN VEGA diskofesta Elizondo plazan.
Ondoren, DJ MARIA BLESSIVE.

23:00 Kontzertua: MI BUENAVENTURA, Ondoren, ZUTIK taldeagaz erromeria. Txosnagunean.

EKAINAK 29
SAN PEDRO EGUNA

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA.

18:00 TIO TERONEN SEMEAK Haurreskolari ikuskizuna. Elizondo plazan.

19:00 BERTSO SAIOA txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA.

22:00 Kontzertua: BIGBLACK RHINO. Eskolako patioan.

EKAINAK 30

12:30-14:00 // 16:00-19:00 UMEENTZAKO UR PARKEA: Jumping, puzgarriak eta abar. Kirodegiko aparkalekuan.

16:00 BOLO IKASTAROA GAZTEENTZAT. (8-16 urte bitartean). Bolatokian

17:00 TIRAGOMA TXAPELKETA. Udaletxeko lorategian. Hainbat maila.

19:00 TROCOS LUCOS ZIRKUA 'TARTANA' ZIRKU AKROBATIKOA BASKULA. Eskolako patioan.

22:00 Kontzertua: OILAR BELTZAK. Rantxerak. Elizondo plazan.

UZTAILAK 1

11:00 FAMILIENTZAKO TAILERRAK. ESKULANEN FABRIKA FAMILIAN. Kolorezko harea duten koadroak eta zapi tailerra. Udaletxeko lorategian

11:00-19:00 DIWOAK bilatzen. Ginkana (adin guztietarako). Udaletxeko lorategian

16:00 Mutilen III. eta Mistoen VI. FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK. Olakueta frontoian.

19:00 DJ MARRAZO tabernarik taberna, Urtiaga plazatik hasita. Ondoren, ZUMBA. Txosna batzordeak antolatuta.

23:00 ALTXA PORRU taldeagaz erromeria. Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: MEISON + LUKIEK. Txosnagunean.

UZTAILAK 2
SANTA ISABEL EGUNA

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA.

14:00 JUBILATUENTZAT BAZKARIA. Bazkalostean musika. Kiroldegan.

18:00 PICCOLO CAMERINO. Magia Clown Umorea Malabareak. Adrián Conde. Eskolako goiko patioan.

19:30 BARBAKOA. Txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA. Elizondo plazan.

20:30 TORTILLA LEHIAKETA Udaletxeko lorategian.

23:00 DEABRU BELTZAK. "SU TALKA" Kiroldegitik udaletxeko lorategira.

www.tornilleria-amezua.com

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.

FABRIKATZAILE ON BAT AUKERATZEAREN GARRANTZIA



BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49
E: o.josu_berrizarkitektoak.com

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45
Garaia A, BERRIZ
Tel./Fax: 946 824 143
Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturritza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



keinu

OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

Naia Zabala Azurmendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 - BERRIZ - 94 622 50 99
keinuoptometriazentroa.com



lazko jaien hasiera.

Berriztarrek prest daude festa lehertzeko

Ekainaren 27tik uztailaren 2ra bitartean, San Pedro eta Santa Isabel jaiak ospatuko dituzte Berrizen. Aurten ere, adin eta gustu guztietarako ekintzak egongo dira: gastronomia txapelketak, herri bazkaria, dantzariak eta musika, besteak beste

M.Z. BERRIZ

Ekain amaieragaz batera, bueltan dira Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak, eta berriztarrei herriko jaietz gozatzeko ordua heldu zaie berriro ere. Ekainaren 27an ekingo diote festari, Udaltaldeko kideek pregoia irakurrita. Ondoren, ohikoa duten moduan, sardina-jana, Donien Atxaren igoera eta Dantzari Dantzako azken entsegua egingo dituzte. Lehenengo eguneko jaiak borobiltzeko, Luhartz taldeak erromeria egingo du Elizondo plazan, eta Old Time Spooks eta Gailu taldeek kontzertua eman dute txosnagunean.

Hau ez da izango musikazaleek izango duten hitzordu bakarra; uztailaren 2ra bitartean, hainbat kontzertu egongo da. Jaiak hasi eta hurrengo egunean, esaterako, Oihan Vega eta DJ Maria Blessive musika ipintzen izango dira Elizondo plazan, eta Mi Buenaventura eta Zutik taldeek txosnagunea girotuko dute. Ekainaren 29an Bigblack Rhino taldeak kontzertua emango du eskolako patioan, eta ekainaren 30ean Oilar Beltzak taldearen eskutik rantxerak egongo dira

Elizondo plazan. Uztailaren 1ean emango diete amaiera musika kontzertuei. Altxa Porru taldeagaz erromeria egongo da, 23:00etan, eta Txosnagunean Meison eta Lukiek taldeen kontzertua.

Ekitaldiz beteriko jaiak

Musika kontzertuez gainera, berriztarrek beste hainbat ekitaldi ere izango dute. San Pedro bezperan, esaterako, paella lehiaketa, txosnaguneko herri bazkaria eta moztorra jaitsiera egongo dira, besteak beste. San Pedro egunean, meza, dantzarien saioa (goizekoa eta arratsaldekoa), Tio Teronen Semeak eta bertso saioa egongo dira. Eta ekainaren 30ean umeentzako ur parkea, bolo ikastaroa, tiragoma txapelketa eta Trocos Lucos zirkua egongo dira. Uztailaren 1erako, familientzako tailerrak, frontenis txapelketa eta zumba saioa antolatu dituzte. Eta jaiak amaiera emateko, uztailaren 2an, jubilatuen bazkaria, *Piccolo Camerino* ikuskizuna, dantzarien saioa, barbakoa, tortilla lehiaketa eta Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna egongo dira.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua Indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Egunon

OKINDEGIA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA

Iturriza 21, Berriz
Tel.: 946 550 902

EREÑA
ERRETEGIA - JATETXEA

Espezialitatea
bildotsa burruntzian.
Haragia eta arraina
txingarretan.

Ereña auzoa, 36
Tel.: 946 824 033
48240 Berriz

VCG

VCG decoletaje
Vda. de Cándido Gasteluneta, S.A.

Eitua Industrialdea, 20
48240 Berriz, Bizkaia

946 824 012 info@vcg-decoletaje.com
946 827 978 www.vcg-decoletaje.com

HIERRROS
RIEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390
hierrosriezu@telefonica.net

pedrojuanena
JATETXE-ERRETEGIA

SAN ANTONIO, 1
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL.: 94.682.63.46

Jaiak elkarregaz bizitzeko deia

Berrizko Udal Kontseiluak irakurriko du aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaietako pregoia eta jaurtiko du jaiari hasiera ofiziala emango dien txupina

Aritz Maldonado BERRIZ

45 urteko jarduna aitortzeko, Udal Kontseiluari eman diote aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaietako pregoia irakurtzeko ardura. Hain zuzen ere, kontseilua 1980tik dago martxan, eta elkarteak lehenengo urratsak eman zituenetik dago José Chávez bertan. "Udal demokratikoak lortu berrian, herritarren parte hartzea bultzatzea zen kezke-tariko bat, eta hortik sortu zen Udal Kontseilua", argitu du Chávezek. Ia mendeerdiko ibilbidean, ibilbide gorabeheratsua izan du, baina etenik bakoa. "Kontseiluak bizi propioa du, jende berria sartzen da, bere krisiak ditu,

baina 45 urteren ondoren hemen jarraitzen dugu", azaldu du Maria Jesus Ormaetxeak. Kontseiluan urte batzuk geroago sartu arren, 80ko hamarkadatik dabil bera ere bertan. Gaur egun lan boluntarioarako unerik gozoena bizi ez arren, gogotsu daudela nabarmendu du Jesus Arrizabagak ere: "Gizartea aldatu egin da urte hauetan guztietan, behar-rak eta erronkak ere bai, eta kontseilua horretara ere ohitzen da". Gaur egun immigrazioa da elkartearen lehentasunetarikoa bat. "Arazoak ikusarazi egiten ditugu, eta handia izan da Berri-zen kontseiluak egin duen ekar-pena. Kontu batzuk egonkortu



Udal Kontseiluko kideak.

egiten dira, baina berriak sortzen dira. Orain, adibidez, etorkinekin lan egiten dugu, Olakueta etxeko jendeagaz batera", azpimarratu du Rosa Mari Ostaginek; bera ere bidean egon da ia urte hauetan guztietan. Etorkizuneko erronkei ere itxaropentsu eusten diete. "Krisialdietan ere ikasten da, geratu, pentsatu, hausnartu

eta berkokatzeko", gehitu du Ormaetxeak.

Jaietarako gogotsu

Chavezen berbetan, jaiak auke-ra ona dira herritarrek elkar ezagutzeko. "Herriko jaiak batzen dute jenderik gehien herrian. Ezagutzen ez dituztenak ere erakartzeko modu ederra dira jaiak,

denonak direlako", azaldu du. Horregaitik, gogotsu daude jaiak hasteko.

Pregoiari dagokionez, ondo pasatzeko mezuaz gainera hausnarketarako mezua ere bota du Chávezek: "Munduan bizi dugun egoera ikusita, sekulako zortea dugu txupinazo bat bota ahal izateaz".



express

Behar duzuna
hurbil eta eroso



Zengotitabengoa kalea
BERRIZ
946 824 215



AHOLKULARITZA FISKALA, KONTABILITATEA, LANEKOA; KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA
Iturritza Kalea, 42, behea - Berriz
685 708 606 / 688 776 828 / eratuaholkularitza@gmail.com

**Estanko
Etxebarria**



Iturritza 14, Berriz
Tel: 94 682 79 58

Kimu
Loradandia eta Opiariak



946 824 228
kimuzabala@hotmail.com

Iturritza, 45
48240 Berriz (Bizkaia)



Ibaiondo

Ferreteria · Burdindegia

SARRAILGINTZA · ATEZAIN AUTOMATIKOAK · BIDEO ZAINZA



ferreteriaibaiondo@gmail.com · Geltoki, 11 BERRIZ · 946 824 489

APATAKO JAIK 2025



www.atxondo.eus

**2025eko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!**

APATAKO JAIK

**Atxondo EKAINAK 27 Bakailao eta tortilla txapelketak**

Apatako jaien barruan, bakailao eta tortilla txapelketek aurten ere ez dute hutsik egingo. Txapelketen ondoren, herri afarian batuko dira. Afalostean Itzal taldearen erromeria eta Egurra eta Kitto After taldearen kontzertua egongo dira.

Frontoian, 21:00etan

EKAINAK 22

Mendi martxa

EKAINAK 26

12:00 Jubilatuen luntxa

18:00 Txopo txikia apaindu. Gaztetxeko barra zabalik egongo da txopo txikia apaintzen duten bitartean.

19:00 Txopo txikia eta handia plazara. Ondoren, pregoia: Atxondoko pilota eskola. Txosnaren irekiera eta Talogileak taloen postua

20:00 Txalainak kontzertu akustikoa. Ondoren, etxeko DJak txosnan.

EKAINAK 27

18:00 Aurpegia margotu.

21:00 Bakailao eta tortilla txapelketak. Herri afaria. Ondoren, Itzal erromeria eta Egurra ta Kitto after taldea.

EKAINAK 28 MOZORRO EGUNA

MOZORRORAKO GAIA: AZOKA.

12:00-14:00 Haurrentzako azoka jolasak.

13:00 Igel txapelketa.

14:30 Kuadrillen paellak.

17:00 Mus txapelketa.

18:00 Barsanti antzerkia: 'Legea gu gara'

19:00 Karropoteoa.

21:00 Kontzertuak Gaztetxean.

23:00 Fane-ren kontzertua eta Zirkirik Bez erromeria.

EKAINAK 29

11:00-14:30 Nekazari eta Artisau Azoka.

12:00 Euskal Dantzak.

16:30 Umeen pilota finalak. Pelota Goxua txapelketako finalak. Herriko pilota partidua. Ondoren, txopoa bota eta txokolatea.

akebaso
akebasorestaurante.com

*Jaietan zatoz gurera,
eta ondo pasa San Pedroetan!*

San Juan auzoa 16, Axpe - akebaso@akebasorestaurante.com - 94 658 20 60

DRAXTON
ATXONDO

DRAXTON
Mobility inspired

GIS

Europako automozio balazta sektoreko osagalen ekolizpenean llderrak gara

www.draxton.com





Ekainaren 26an jasoko dituzte txopo handia eta txikia.

Pilota eskolaren pregoiak hasiko ditu Apatako jaiak

Ekainaren 26an hasiko dituzte sanpedroak, txopoa jasota eta Atxondoko Pilota Eskolaren pregoiagaz. Jaietan Txalainak, Fane eta Zirkinik Bez taldeen kontzertuak egongo dira plazan; Gaztetxean, Gozzue eta Take taldeenak, besteak beste

J.D. ATXONDO

Axpeko sanpedroak ekainaren 26an hasiko dira txopo handia eta txikia jasota. Talogileen postua egongo da plaza ondoan. Aurten, Atxondoko Pilota Eskolaren irakurriko du jaietako pregoia, herriko umeen artean pilota biziberritzeko lanean dabilatzanez errekonozimendu legez. Pilota jaietako azken egunean ere izango da protagonista, aurten lehenengoz antolatuta duten Pelota Goxua Txapelketak finalak jokatu dira eta.

Jaietako beste nobedadeetarikoa bat honako hau da: aurten, lehenengoz, jaietako zapiak sal-

duko dituzte, jaietan urtero erabiltzeko modukoak. Horrez gainera, jai batzordeak Instagram kontu bat sortu du jaien berri emateko: @apatako_jaixek.

Musika eskaintzari dagokionez, barikuan Itzal erromeriak eta Egurra ta Kitto after taldeak kontzertua emango dute plazan;

zapatuan Fane musikariak eta Zirkinik Bez erromeria izango dira. Plazako musika eskaintza Txalainak taldeak osatuko du. Gaztetxean ere musika eskaintza zabala antolatuta dute. Ekainaren 27an Gozzue taldeak joko du, eta biharamunean TAKE taldeak.

**Bildu, sailkatu, berrerabili...
Eta energia oraindik
urrunago joateko**

HIRUMET

la kompra
SUPERMERCADO AMIGO

Euskal Herria kalea 3, ATXONDO
Tel.: 946 550 995

Ondo pasa jaietan!! la Kompra supermerkatuak

itziar
Kafetegia - Taberna

Benta Barri, 2 · Tel.: 946 582 363 · 48291 Atxondo (Bizkaia)

BURDINAK, S.L.

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxa: 946 583 416
www.burdinak.com

BI-632 Durango
BI-632 Elorrio

Zoriontsuak izan Jaixetan!

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI BIODEGRADAGARRI ETA BIRZIKLAGARRIAK

cemosa
GRUPO CELULOSAS MOLDEAGAS, S.A.

Autonomia 2
ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17
Faxa: 94 623 17 99
www.soul-cemosa.es

alboan
PSIKOGUNEA

Psikomotrizitatea,
yoga, homeopatia eta
erlaxazio-armonizazio
saioak

Tel. 688 774 295
Jose Antonio Agirre
etorbidea, 2
ATXONDO


Atxondoko
Carnicería · Harategia

Produktu lokalak salgai · Kalitatezko produktuak bertatik bertara · Kalitate oneko haragia
Etxeko hanburgesak, katxopoak eta lasagnak

Whatsappez eskaerak egin daitezke
747 494 412




LABIRINTOA



LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu.



ZENBATU

Objektu bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?





Pello Baños, Liher Arteaga, Ekhi Arrieta, Anartz Ugarte eta Jon Agirrebeitia. GORKA LANDIA

"Garaiz eta tokiz kanpo sentitzen gara talde legez"

JON AGIRREBEITIA, EKHI ARRIETA ETA PELLO BAÑOS NEVADAH

MUSIKA Gaur, ekainak 20, Nevadah Durangaldeko boskoteak 'Outta time' laugarren lana kaleratuko du; rock doinuei fidelak izaten jarraitzen dute lan honetan ere

Aritz Maldonado DURANGO Nevadah boskotea bueltan da. Gaur, ekainak 20, *Outta time* laugarren diskoa kaleratu dute. Lau lan egiteaz gainera, dozenaka zuzeneko eman dituzte hamar urteotan. Hain zuzen ere, datozen asteetan lan berri hau ere zuzenean aurkeztuko dute Durangaldean. Besteak beste, Mendiolako (uztailak 11) eta Mañariko (abuztuak 13) jaietan joko dituzte kontzertuak.

'Outta time' ipini diozue izena diskoari. Garaiz kanpo sentitzen zarete? **Ekhi Arrieta:** Garaiz kanpo eta lekuz kanpo. Neurri batean, ez dakigu zelan harremandu gaur egungo musikagaz eta garaiagaz. Zehatz-mehatz non gauden ere ez dakigu, baina bertan gaudela esan gura dugu. Gure soinua garatzen

jarraitzen dugu, eta gauza berriak probatzen ditugu, baina, esentzian, Nevadah da.

Pello Baños: Gure audientzia berrogei urte ingurukoa da gehien bat; 18tik 30 urtera arteko jende gutxi ikusten da gure kontzertuetan; egongo dira, baina lehengo musikan mantentzen garen egoskor horiek sentitzen gara. Hori esanda, errespetu osoa diegu musikari eta doinu berriei, baina lekuz kanpo sentitzen gara.

Jon Agirrebeitia: Tokiz kanpo

"AURREKO DISKOAN BAINO ERRAZAGOA IZAN DA ORAINGOAN TALDERA EGOKITZEKO LANA"

gaur egungo "mugimendutik" ere, desberdinak edo. Badago rockaren berpizte bat, baina bide paralelo batean legez ikusten dugu geure burua. Ez gaude punk-rock mugimendu horretan, taldeak-eta gustuko ditugun arren. Bergarako Ekinez jaialdian, adibidez, gure ordua nahiko goiz izan zen, horrek ez zuen lagundu zale asko joan zitezen, baina han batu zirenak musikazaleak ziren, beste talde batzuetan aritzen direnak, eta hori ikustea ere pozgarria da, musikariek eurek baloratzea egiten duguna.

'Still goes on' deitzen zen aurreko diskoa; hori ere aldarrikapen bat zen, bizirik jarraitzen zenutela.

P. B.: Horrela esanda, egia da diskoen izenburuekin intentzionalitate bat izan dugula, garai

bakoitzari lotuta. *Still goes on* pandemiaren ondoren etorri zen, geldirik egon ginen garairik luzeenean; isilik egon ginen, baina lokalean lanean, abesti berriak idazten.

J. A.: Izenbururako bi-hiru aukera genituen esku artean, eta hau iruditu zitzagun egokiena. Beharbada, adinean gora goazelako eta gazteagoek beste musika bat entzuten dutelako, lehenago esan dugun moduan.

Ekhi, aurrekoan ez bezala, hasieratik parte hartu duzu disko honen sorreran.

E. A.: Aurrekoan, nahikoa lan izan nuen taldera egokitzen, nire ahotsa topatzen, ahotsa taldera egokitzen... Orain, prozesua bera errazagoa izan dela sentitu dut. Gainera, *Still goes on* diskoagaz, lupa gehiago igarri nuen niri begira. Bestalde, taldeagaz lehenengo diskoa zen, aurkezpen kontzertuko sarrera guztiak saldu ziren Plateruenean...

J. A.: Orokorrean, hau naturalagoa izan da. Disko honegaz ez dugu aurkezpen kontzertua bere horretan egingo. Maiatzaren lehen Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jo genuen eta disko berriko abestiak ere jo genituen. Hiru kontzertu jo ditugu ordutik.

P. B.: Ekhiren abesteko moduan dena oso erraz joan dela igarri

"BERE KONFORT-ZONATIK IRTETZEKO GOGOZ IKUSI GENUEN JULEN URZAIZ TEKNIKARIA"

dugu, grabatzerakoan batez ere. Aurreko diskotik hona sekulako aldea dago, bai tonuetan, baita ingelesaren ahoskeran ere, adibidez.

E. A.: Landuago joan naiz, irakurrita, eta kantu klaseetan ere ibili naiz. Hori igartzen dut ahotsaren kontrolean, adibidez.

Iruñeko Sound of Sirens estudioetara jo duzue disko hau grabatzera, Julen Urzaizegaz.

J. A.: Azkeneko diskotik soinua apur bat aldatzea gura genuen, eta estudio biren artean zalanza genuen; kasualitatez, Zestoan, Gaztain estudioetan ezin dugu denok batera grabatu, espazio kontuagaitik. Erreferentzia onak genituen eta disko onak grabatu dituzte bertan. Ez gure estiloan, beharbada, baina gogoia genuen hara joateko.

P. B.: Gu sartu ginenean, oso pozik ikusi nuen, oso ondo hartu gintuen eta erronka legez hartu du grabazio hau. Bere konfort-zonatik irteteko gogoz ikusi genuen, eta gurera moldatzeko prest. Berarentzat ere esperientzia ona izan dela esan zigun. Gainera, zuzenean grabatu duen lehenengo taldea izan gara eta asko entseatuta joan ginela azpimarratu zigun.

E. A.: Julen bera oso pertsona lasaia da, eta hori transmititzen du estudioan. Proposamenak ere egin ditu, eta proiektuan sartu da; horixe bilatzen genuen. Grabazioak iraun duen bost egunak han pasatzeak ere lagundu du diskoan zentratzeko. Bostok etxe batean hainbat egunez batzeak ere lagundu du.

Musikalki, nora jo gura izan duzue?

P. B.: Ez dugu planteatu diskoa kontzeptu bakarraren barruan. Kantak sortzen joan gara, eta baten bat kanpoan geratu da. Zazpiak batera ondo geratzen dira, baina ez ditugu kontzeptu berdinen aterpean sartu. *Mare*, adibidez, desberdinena izan daiteke; badaude beste pare bat hard rockera jotzen dutenak, besteren bat The Hellcoptersen rockera gehiago hurbiltzen dena... eta ondo geratzen dira elkarregaz.

E. A.: Nire ustez, horrek egiten du erakargarri Nevadah: bide orri bat izan ez arren, hautaketa-eta oso natural egiten dugu. Soinuan ere nahiko fidelak gara, kantatik kantara mantentzen da, eta hori lagungarria da.

J. A.: Lanean jarraikortasuna izatea ere izan da lagungarria horretan.

Musikairek 25. edizioa egingo du aurten

MUSIKA Musikaireren 25. edizioan, Anarik, Bascolombiak, Olatz Salvadorrek eta Sol Band palestinarrek parte hartuko dute, besteak beste; jaialdia uztailaren 5etik 27ra izango da; urteekin egonkortu den dantza garaikide emanaldia uztailaren 20an izango da

Aritz Maldonado ELORRIO

Elorrioko Musikairek 25 urte egingo ditu aurtengo uztailean. Hain zuzen ere, uztailaren 6an izango da lehenengo emanaldia. Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak hainbat euskal klasiko jazz doinueta moldatuko ditu. Bestalde, Audience talde gernikarrak Bob Dylanen klasikoak berrikusiko ditu, uztailaren 11n, Lariz jauregian. Anarik ere hantxe emango du kontzertua. Nazioarteko ordezkari legez, Sol Band talde palestinarrek uztailaren 13an emango du kontzertua. Eta uztailaren 18an *Bascolombia* emanaldia egongo da plazan; Oreak Tx taldeak eta Phonoclorica talde kolonbiarrak indarra batu dute ikuskizun berezi honetarako. Antolatzaileek Pettiren eta Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabalen *Sustraiaren matxinada* ere nabarmendu dute.

Hogeita bost urteotan, musikaz gaindiko ekitaldiak ere antolatu dituzte Musikairen. Jada



Olatz Salvador. AIRAKA

klasiko bihurtu da, adibidez, Pirrix Porrotx eta Marimototsen emanaldia; uztailaren 6an, *Ostirala iritsi da* emanaldia egingo dute, plazan, 19:00etan. Urteekin egonkortu den beste emanaldietariko bat dantza

garaikide emanaldia da; aurten, Lasala, HURyCAN, Kiko Lopez eta Qabalum konpainiek *Burnt, Te odiero, Honest* eta *Todo este ruido* piezak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren, uztailaren 20an.



lazko ekitaldia. GAIKZA PEÑAFIEL

'Gorbeiatik Anbotora' bidaia musikala egingo dute Arriolan

MUSIKA Iaz Igorren egindako ekitaldi arrakastatsuen ondoren, itzulerakoa Elorrioren egingo dute, zapatuan

A. M. ELORRIO

Elorrioko eta Arratiako musika eskolek *Gorbeiatik Anbotora* bidaia musikala prestatu dute elkarlanean. Iaz, *Anbototik Gorbeia*ra egin zuten, Igorren, eta hango arrakastak bultzatuta animatu dira aurten ere antzeko ekitaldia egitera. Elorrioko ikasle gazteen Besaide Band eta Arratiako ikasle gazteen Gorbeia Ensemble taldeek indarra batu dute beste behin ere, eta erekin batera hainbat gonbidatu izango dute kontzertuan; musika izango da nagusi ekitaldian, baina bestelako diziplinak ere jo-

rratuko dituzte. LOR taldeko Landerrek eta Kimetzek ere parte hartuko dute, eta baita Monshine Wagon taldeak, Goizeder Abendibar harri jasotzaileak, Oihana Azkorbebeitia mendilasterkariak, eta Elorrioko eta Arratiako dantzariak ere. Maider Aranguren egingo ditu aurkezle lanak musika, kultura eta euskal tradizioa batzen dituen ekitaldi berezian. Bigarren edizio honegarekin, antolatzaileek lanean jarraitzen dute zero kilometroko ikuskizuna egiteko helburuaren alde. Iaz, Kepa Junkera musikaria omendu zuten.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Denbora

Zortzi ordu eta hamaika minutu. Hiru ordu eta berrogeita hamalau minutu. Ordu bat eta berrogeita bost minutu. Zazpi ordu eta hemeretzi minutu. Bost ordu eta hogeita hemezortzi minutu. Bi ordu eta hogeita bi minutu. Lau ordu eta bederatzita minutu.

Edozer izan zitekeen, baina ez, inguruan galdetuta jaso ditudan datuak dira hauek: mugikorraren eguneko erabilera orduak. Zifra batzuekin izutu naiz, lanegun oso bat mugikorrari itsatsita. Gehiago edo gutxiago, denak antzera samar gabiltzala ikusi dut, eta ez dakit honek lasaitu edo gehiago larritu nauen.

Lagun batekin kafe bat hartzen zaudela komunera doa, mugikorra. Gidatzen zaudela eta semaforoa gorri, mugikorra. Antzerki edo zinema ikuskizun batean ezin ordu eta erdiari eutsi eta mugikorra.

Irteera polita antolatu zuen herriko mendi taldeak duela asteburu pare bat; Aizkorri eta Urbiara egun

pasa. Plan ederra eta giro ezin hobea, eta guztia hobetzen zuen faktore bat, koberturarik ez. Pare bat argazki ateratzeko erabiliko genuen sakelakoa. Guztion mugikorraren bateriak bete-beteak itzuliko ziren etxera. Urbian, fondan, dauden hamaka antzeko jarlekuetan eserita korro handi batean elkar gozatzeko aukera

ETA ORAIN, ZENBAT DENBORA IGAROKO DA SAKELAKOA HARTZEN DUZUNERAKO? EDO AKASO, TELEFONOTIK ARI AL ZARA IRAKURTZEN?

eduki genuen, eta hala gozatu ere. Panorama bestelakoa izango zen sarea izango bagenu. Kosta egiten da sakelakorik gabe bizi genituen garaia gogoratzea.

Esango nuke, sakelakoari lotuta igarotako zifra horiek ikustea zeharo naturalizatuta dugula, baina kalkuluak kalkulu, astean 48 ordu inguru dira. Erraz esaten da. Segundo, minutu edo ordu hauek lanari kendu bage-nizkio gaitz erdi; baina ez, normalean zeri lapurtzen diogu denbora? Lagunekin egoteari? Bikotekidearekin elkarriketa goxo bat edukitzeari? Familiarekin denbora pasatzeari? Liburu eder bat edo film on bat ikusteari?

Eta lerro hauek irakurtzeko zenbat denbora behar izan duzu? 80 segundo? 120? Eta segidan irakurri dituzu ala etenik egon al da? Eta orain, zenbat denbora igaroko da sakelakoa hartzen duzunerako? Edo akaso, telefonotik ari al zara irakurtzen?

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 20

ABADIÑO Kontzertua
Loak taldea.
Zelaietako Jubilatuen tabernan, 19:30ean.

ATXONDO Sanjoanak
Umeen pilota partiduak. Ondoren, Abxondoko I. Pelota Goxua Txapelketa (finalaurrekoak), 17:30ean. Pintxo potea, 19:30etik 20:30era. Txopoa jasotzea, 20:30ean. Meison + Garratz + Dj Bull, 22:00etan. *Axpe auzoan.*

DURANGO Erakusketa
'Herri' (Luis Izaguirre Balber).
Otamotzena auzogunean, 18:30ean.

MALLABIA Sanjoanak
Txopoa alxatu eta txapliguak, 19:00etan. Bertso afaria: Unai eta Beñat Agirre. Trikitilariak afalostea girotuko dute.
Goita auzoan, 21:30ean.

IZURTZA Kontzertua
Pelax.
Herriko Tabernako terrazan, 19:00etan.

ZORNOTZA Musika
Haizetara XVIII. Musika Jaialdia.
Herriko kaleetan, ekainaren 22ra arte.

ZAPATUA 21

ATXONDO Sanjoanak
Mozorro Eguna: 'Euskal jaiak' Bakailaoa pil-pil eran eta tortilla txapelketa, goizean (aurkezpena, 14:00etan). Ondoren, herri bazkaria. Eingo taldea, 16:30ean. Mus txapelketa, 17:00etan. Bingoa, 18:30ean. Ondoren, Bada Giro taldea.
Axpe auzoan.

DURANGO Bisita Gidatua
'Artea agerian'. Izen ematea: *turismo@durango.eus* helbide elektronikoan edo 94 603 39 38 telefono zenbakian.
Turismo Bulegoan (10:30-12:00).

DURANGO Udako Gazte Eguna
Kamisetak banaketa eta Asanbladaren fanzinearen aurkezpena, 12:00etan. Plastilina txapelketa, 12:30ean.

Gazte bazkaria, 14:30ean. Frontenis txapelketako finalak, 17:00etan (Kurutzia ikastolan). Poteoa txarangagaz, 19:00etan. Gozzue + Kiliki, 21:00etan.
Otamotzenan.

ELORRIO Bidaia musikala
Gorbeiatik Anbotora: Besaide Band & Gorbeia Ensemble (Elorrioko eta Arratiako ikasleak) + Lander eta Kimetz (Lor) + Moonshine Wagon + Goizeder Abendibar harri jasotzailea eta Oihana Azkorbebeitia lasterkaria + Elorrioko eta Arratiako dantzariak. Maider Aranguren gidatuta.
Arriola antzokian, 19:00etan.

GARAI Sanjoanak
Donien atxa jasotzea, 20:30ean. Herri afaria, 21:00etan. Ondoren, Mirari eta Aintzane trikitilariak.
San Joan Momoitioin.

IZURTZA Topaketa
Kotxe klasikoak (Eskuko Racing).
Aparkalekuan, goizean.

IZURTZA Antzerkia
Welcome & Sorry (Ganso&Cia).
Udaletxeko plazan, 19:00etan.

MALLABIA Sanjoanak
Umeentzako jolasak, 18:00etan. Patata tortilla txapelketa, 20:30ean. Trikitilariak, 22:00etan. Gero, DJ Marrazo.
Goita auzoan.

OTXANDIO Kontzertua
Eñaut Elorrieta (Ate osteko bira).
San Antonio ermitan, 19:30ean.

DOMEKA 22

ATXONDO Sanjoanak
Inguruko artisauen azoka, goizean. Meza nagusia, 11:30ean. Andasto dantza taldea, 12:30ean. Igel eta mus txapelketak, 13:00etan.
Axpe auzoan.

BERRIZ Sanjoanak
Meza nagusia. Ondoren, San Lorentzo dantza taldea, eta kopaua. Jose Mendizabalegaz erromeria.
Murgoitio auzoan, 12:30ean.

DURANGO Bisita Gidatua
'Erdi Aroko Hiribildua' (Gerediaga eta Urkiola Landa Garapena). Ezinbestekoa da izena ematea eta baieztapena

jasotzea: Gerediaga elkartearen (94 681 80 66) edo *gerediaga@gerediaga.eus* helbide elektronikoan. Zero kilometroko produktuen dastatzea.
Durango, 11:00etatik 13:30era.

DURANGO Dantza
Aiurri (Aukeran konpainia).
Otamotzena parkean, 19:00etan.

GARAI Sanjoanak
Meza, 10:30ean. Ondoren, dantzariak. Oilasko paella txapelketa, 14:30ean.
San Joan Momoitioin.

IURRETA Tailerra
Belarritako eta eraztunak (Sortuaraziz).
Abadetxean, 12:00etan.

IZURTZA Azoka
Bigarren Eskuko Azoka. Karmele Abaitua, Ixone Asategi eta Naroa Jaio bertsolariak, 13:00etan.
Udaletxeko plazan, 11:00etan.

MALLABIA Sanjoanak
Meza, 11:00etan. Ondoren, Gazte Alai dantza taldea. Boletie: Il. San Joan Sariketa Nagusia, 17:00etan. Gero, txokolatea.
Goita auzoan.

ASTELEHENA 23

ABADIÑO Udaburu Jaia
Umeentzako jolasak (17:00-19:00). Artisau azoka (17:00-21:00). Eskoletako Mendi Erronkaren sari banaketa, 19:00etan. Hanburgesak (Eusko Label), 20:00etan. DJ Mo, 20:00etatik 22:00etara. San Joan sua, 22:00etan.
Astola (euria bada, probalekuan).

ATXONDO Sanjoanak
Umeentzako jolasak, 17:00etan. Sua piztea eta txokolatea.
Axpeko plazan, 21:00etan.

BERRIZ Sanjoanak
Sua, txapligoak eta kanpai hotsak.
Murgoitio auzoan, iluntzean.

BERRIZ San Joan Sua
Mister Team, 21:00etan. San Joan sua.
Berrizburun, 22:30ean.

DURANGO San Joan sua
Gaztelu puzgarriak (11:00-14:00/16:00-18:00). Txokolatada

solidarioa, 18:00etan. 'Azken taupadak' antzerkia, 18:30ean. Erromintxelak, 20:30ean. Sua piztea, 22:30ean.
Otamotzena parkean.

ELORRIO San Joan sua
San Joan ermitara igoera plazatik 16:30ean. Bertan, Eriz Magoa eta merienda, 17:00etan. Gor Super D. jey disko festa, 21:30ean. Sua, suzko zezen eta erruberak.
Kiroldegiaaren alboan, 22:15ean.

GARAI Sanjoanak
Kopaua. Ondoren, sua.
San Joan Momoitioin, 21:00etan.

IURRETA San Joan sua
Maiztegiko dantzariak, 18:30ean. Herri afaria, 20:30ean. Zirkiñik Bez taldea, 21:30ean. San Joan sua, iluntzean. Bizikleta ibilaldia bidegorrian zehar (5 urtetik gora, kaskoagaz), 22:45ean.
Plazan.

IZURTZA Kontzertua
Zoe Igartiburu eta Alex G + Ji-Kunak. San Joan sua.
San Tomas parkean, 19:00etan.

MAÑARIA San Joan sua
Txistulariak eta txokolatada, 18:30ean. Sua piztea, 20:00etan.
Artzubiko aparkalekuan.

MALLABIA Sanjoanak
San Joan sua eta auzokoentzat afaria.
Goita auzoan, iluntzean.

MALLABIA San Joan sua
San Joan sua.
Ansoagako bidegorrian, 20:00etan.

OTXANDIO San Joan sua
Herrian prestatutako suak piztea.
Otxandion, 22:00etan.

ZALDIBAR San Joan sua
San Joan sua, 21:30an. Dantza ikuskizuna, 22:00etan.
Udaletxeko plazan.

ZORNOTZA San Joan sua
Udazken taldeko gaiteroak, 21:00etan. San Joan sua.
Nafarroa aparkalekuan, 22:30ean.

ZORNOTZA Zelaieta Blues
Zeñok Blues Band.
Liburutegian, 18:00etan.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

28 años
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 16:45, 19:00, 21:30.
Domeka 22: 17:00, 19:30.
Astelena 23: 17:45, 20:15.
Martitzena 24: 17:45, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

Virgenes
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 19:30, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

Bajo el volcán
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 19:30, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

Cómo entrenar a tu dragón
Zapatua 21: 17:00.
Domeka 22: 17:00.

Lilo y Stitch
Zapatua 21: 16:45.
Domeka 22: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Jane Austen arruinó mi vida
Domeka 22: 20:00.
Astelena 23: 20:15.

Moon, mi amigo panda
Domeka 22: 17:00.

MARTITZENA 24

ATXONDO Sanjoanak
Meza nagusia, 11:30ean. Ondoren, herriko jubilatuentzako luntxa. Briska txapelketa, 17:00etan.
Axpe auzoan.

BERRIZ Sanjoanak
Meza nagusia eta kopaua.
Murgoitio auzoan, 12:30ean.

GARAI Sanjoanak
Meza. Ondoren, hamaiketako.
San Joan Momoitioin, 12:00etan.

MAÑARIA Sanjoanak
Meza. Ondoren, dantzariak.
San Joan ermitan, 11:00etan.

MALLABIA Sanjoanak
San Joan sobrea prestatzea, 18:00etan. Meza, 19:00etan. Ondoren, kopaua eta errifen zozketa.
Goita auzoan.

EGUAZTENA 25

IURRETA Berbaldia
'Literaturaz berbetan': Karmele Jaio.
Abadetxean, 19:00etan.



Iazko Amaraune mendi lasterketako sari banaketa.

Amaraune mendi proba lehiatuko dute zapatuan

MENDI LASTERKETA Berrizko Amaraune mendi lasterketaren laugarren aldiak orain arteko harrerarik onena izan du. Lasterketa luzearen eta laburraren artean, ia 300 parte hartzaile batuko dira. Durangaldeko Kopako bigarren lasterketa izango da

Joseba Derteano BERRIZ

Berrizko Amaraune mendi lasterketak laugarren aldia egin-go du zapatu honetan, eta izen ematea ia agortu egin dute. Lasterketa laburrean 150 parte hartzaile izango dira, eta luzean 145. Beraz, ia 300 korrikalari

batuko ditu guztira. Antolatzailleak "oso pozik" daude lasterketaren harreragaz, eta Durangaldeko Kopara batzeak egindako "mesedea" azpimarratu dute. "Oiz inguruan probak antolatzen ditugunoi Kopak mesede egin digu". Egun berean

Burdin Hesia lasterketa jokatuko da, eta, hala ere, Amarauneko izen ematean gorakada izan dugu", esan du Amaraune Mendi Kirol Elkarteak Aiert Agirrek. Lau urtez geratu barik egindako lan konstantea ere faktore garrantzitsutzat jo du

parte hartzea handiatzeari dagokionez. Eta hurrengo urteetan ere berdin jarraitzea itxaroten du. "Mendi lasterketen munduan hasten dabiltzanentzat ibilbide aproposa da eta hurrengo aldietan ere parte hartzera gonbidatzen ditugu", adierazi du.

Lasterketa biak Elizondo plazatik hasiko dira, 09:00etan. Lasterketa luzeak 21 kilometro ditu, eta 1.100 metroko desnibel positiboa. Bidean Berrizko hiru mendi zeharkatzen dira: Sarri-mendi, Gaztelumendi eta Oiz. Lasterketa laburrak 12 kilometro ditu, eta 500 metroko desnibela. Ibilbide biak urterokoak dira, baso landaketen ondorioz egindako "aldaketa txiki" batzuk salbu, antolatzailleek esanetan.

Iazko proba luzean Iñigo Alzola eta Maria Delgado nagusitu ziren. Aurten ez dira etorriko. Baina bigarren sailkatu zirenak irteera puntuan egongo dira: Irazu Aranburu mallabitarra eta Maialen Artiach elorriarra.

Umeentzako probak

Urtero legez, antolatzailleek mendi lasterketarako afizioa sortzeko ere baliatu gura dute hitzordua. Horregaitik, lasterketak irauten duen artean, umeentzako jolasak eta lasterketa laburrak egongo dira Elizondo inguruan. Horrela, lasterketaren inguruan jai-giroa sortzea dute helburu.

Durangaldeko Kopako bigarren proba

Amaraune lasterketa Durangaldeko Kopako bigarren proba puntuagarria da. **ANBOTO Kopako babeslea da eta gertuko jarraipena egingo dio zapatuko lasterketari, www.anboto.org atarian.** Besteak beste, lasterketaren kronika eta argazkirik onenak egongo dira ikusgai.

Une honetan Nora Narbaiza eta Irazu Aranburu dira Kopako liderrak. Eurek irabazi zuten Kopari hasiera eman zion lasterketa: **Mallabiko 7 Pago.** Gizonetan, Xabat Manzisidor dago bigarren postuan, eta Ander Jauregi hirugarrenean; emakumeetan, Itsasne Urkiaga eta Maialen Artiach daude kokatuta Narbaizaren atzetik. Berrizkoaren ondoren, Zaldibarko Zaldutailor dator, uztailaren 12an.

Munduaren beste puntatik eskualdera etorri ziren ziklistak

TXIRRINDULARITZA Jordan Watkins australiarra eta Liam Lloyd zeelandaberritarra egonaldia egiten dabilta hemen

J.D. DURANGO

Jordan Watkins australiarra eta Liam Lloyd zeelandaberritarra hiru hileko egonaldia egiten dabilta Durangaldean, Cafe Dromedario-Flotamet taldeagaz. Biek gazte mailako adina dute, 17-18 urte.

Zelan etorri dira gazte bi hauek munduaren beste puntatik Euskal Herrira? Lachlan McNabb-ek du 'errua'. Zeelanda Berriko txirrindulari gaztea aitzindaria izan zen iaz; Europan egonaldi bat egin gura zuen, bere maila hobetzeko. Eskaera gutuna bi-

dali zion hainbat talderi, eta gure eskualdekoak zabaldu zion atea. Esperientzia haregaz pozik geratu zen eta bere lagun eta taldekideei berdina egitea gomendatu zien. Horregaitik etorri dira.

BATZUETAN DURANGALDEKO BIZIKLETA ESKOLAKO UMEEKIN IBILTZEN DIRA BIZIKLETAN

Lasterketetan parte hartzen

Lloydek bost-sei lasterketetan parte hartu du martxo amaieran etorri zenetik, eta gehiago izango ziren erorikoengaitik izan ez balitz. Watkinsek bi-hiru probatan parte hartzeko denbora izan du, denbora gutxiago daraman arren. McNabben eskalatzaile dohainik ez, baina taldeko iturriek jakinarazi dute maila txukuna dutela biek. Oraintsu, 30 onenen artean geratu dira tartean Urkiola mendatea izan zuen gazte mailako lasterketan.

Euren maila hobetzeko eta hemengo erritmora ohitzeko baliagarria zaie egonaldia. Batzuetan, Durangaldeko Bizikleta Eskolako umeekin batera ere irten dira bizikletan ibiltzera. Hemen gustura dauden seinale.



Watkins eta Lloyd erdian, Durangaldeko Bizikleta Eskolako umeekin.



Master Kaiola txapelketaren aurkezpena.

Master Kaiola txapelketako finalak jokoan, zapatu honetan

PILOTA Hiru final jokatu dira lau eta erdiaren barruan: emakumeena eta gizonen gazte eta nagusien mailakoak

J.D. ZORNOTZA

Hile bi eta erdiko lehiaren ondoren, Master Kaiola txapelketako txapeldunak zapatu honetan erabakiko dira, 16:00etan, Amorebieta IV pilotalekuan.

Emakumeetan, Zabaletak eta Aldaik neurtuko dituzte indarrak. Joan zen asteburuan, pilotari biek erraz irabazi zituzten Ruiz de Infanteren (22-8) eta Uriarteren (22-11) kontrako finalerdiak, hurrenez hurren.

Gizonen gazte mailan final bi daude: gazteena eta nagusiena. Gazteetan, Okiñena eta Murua pilotarien artean dago txapela.

Biek latz sufritu zuten finalerdietan Ramirez (22-20) eta Egurola (22-19) kanporatu eta finalera sailkatzeko.

Nagusien finala

Azkenik, nagusietan Zubizarretak eta Irribarriak jokatu dute finala. Zubizarretak gorriak ikusita kanporatu zuen Arribillaga finalerdietan: 22-21. Irribarriak, oster, egurtu egin zuen Gutierrez: 22-7. Irribarria sasoi betean dago, baina Zubizarreta ere goi mailako pilotaria denez, zaleek final estua bizitzea itxaroten dute.

Pilota partidu profesionalak, domekan, Zaldibarren

PILOTA San Fermin Torneoko lau eta erdiko final-zortzirenak egongo dira jokoan Olazar pilotalekuan

J.D. ZALDIBAR

Zaldibarren pilota partidu profesionalak ikusteko aukera dago domekan. Jaialdia 17:30ean hasiko da. Lehenengo, binakako partidu bat egongo da: Albi-su-Artola / Larrazabal-Mariez-kurrena II.a. Ondoren, San Fermin Torneoko final-zortzirenak jokatu dira. Partidu horretako protagonistak gaur erabakiko dira, Etxarri Aranatzen. Agirrek Bakaikoaren kontra jokatu du, eta Zubizarreta III.ak Senarren aurka. Sarrerak, aurrez, gaur eskuratu daitezke, ekainak 20, 18:00etatik 20:00etara, Paularen Zokoan (15 euro).



Olazar pilotalekua.



Jokin Camarero eta Lander Barruetabeña, Euskadiko selekzioko elastikoagaz.

Euskadiko selekzioa Portugalen kontra lehiatuko da, Durangon

SASKIBALOIA 21 urtez azpiko talde bien arteko partidua gaur jokatu da, 19:00etan, Landako kiroldegian

J.D. DURANGO

21 urtez azpiko Euskadiko eta Portugalgo selekzioek elkarren kontra jokatu dute gaur, barikua, 19:00etan, Durangoko kiroldegian. Aurkari zaila izango da euskaldunentzat Portugal, B mailako Europako Txapelketan mailaz igotzeko faborittoa delako eta hainbat jokalarik NCAA-n [AEBetako unibertsitate liga] jokutzen dutelako.

Euskadiko selekzioan etxeko jokalaria bi daude: Jokin Camarero (Durango, 2005) eta Lander Barruetabeña (Durango, 2006). Biak Tabirako klubean dabilta.

Camarerok Durangon egin du bere ibilbidea orain arte. Barruetabeña aurten bueltatu da etxera, Bilbao Basketeko harrobian emandako etaparen ondoren. Biek hainbat bider jokatu dute Euskadiko selekzioagaz, mailarik maila. Badakite Portugalen kontrakoa erronka gatxa dela, baina dena emateko prest daude: "Selekzio indartsua da, baina orain hiru urte gu Portugalera joan ginenean, han jokatutako partidua biak irabazi genituen. Hura errepikatzea espero dugu", azaldu du Camarerok gaurko partiduari begira.



JOKALDIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR MENDI LASTERKETAK

Monte Rosa Skymarathon

Azken urteetan begiz jota izan dut Italiako Monte Rosa Skymarathon mendi lasterketa, eta bete dut ametsa. Bikoteka egin beharreko proba da eta Laura Sola korrikalari uztarroztarragaz egin nuen. Lagun aproposa abenturarako. Lasterketan 4.554 metroko altuerara igotzen da eta derrigorrezkoak dira, besteak beste, hamar metroko soka (korrikalari biok segurtasunagaitik elkarri lotuta joateko), arnesa, kranpoiak (glaziarrrerako), via ferratetarako disipadore bikoitza (hango soka finkoari lotzeko) eta hotzerako arropa egokia. Beraz, ez da txantxetarako moduko lasterketa. Ondo prestatuta joan behar da eta proba egunaren aurretik altuerara aklimatitzea eskatzen du. Bestela, jai duzu.

Lasterketa zapatuan izan zen eta martitzenean hasi genuen aklimatazio lana. Lasterketa hasten den Alagna Valsesia herritik (1.154 m) goizean goiz irten eta Città di Mantova mendi-aterpean (3.498 m) egin genuen gaua.

Berriro beheko herrian, Alagna Valsesian, bariku goizean dortsalak hartu genituen, 6A eta 6B, eta arratsaldean *briefing*-era joan ginen, lasterketari buruzko txarlara. Besteak beste, kontuz ibiltzeko esan ziguten, aurreko egunetako beroaren ondorioz arrakalak sortu zirela glaziarrean, eta elur-baliza laranjak ipini zituztela; haien ondotik joan behar genuen, badaezpada.

Irteeran, dena prest. Bastoiak eskuetan, arnesa ipinita, praka elastiko luzeak eta polainak jantzita, soka aldean (Laurak eraman zuen), eta motxilan zira, kranpoiak, mosketoiak, jatekoa... Tropelaren bizitasunak bultzatuta, bizkorregi hasi genuen lasterketa, baina laster mantsotu genuen erritmoa denok, Monte Rosaraino igo eta igo zelako dena, atsedeenik barik. Gorako bidean material kontrola izan genuen. ARVA (Appareil de Recherche de Victimes d'Avalanche) erakusteko eskatu ziguten bakarrik. Elur-jausiren batean elurpean geratuz gero, seinale bat igorri eta mendizalea lokalizatzeko balio duen aparatua da. Paparrean edo tripa parean eraman behar zen, inola ere ez motxila barruan. Gorago, beste kontrol bat, kranpoiarena. Kontrol gunetik tontorreraino eta bueltan leku bereraino derrigorrez ipinita eraman behar ziren, eta tarte horretan biok sokatik elkarri lotuta joan behar genuen.

Lasterketa, beraz, alpinismo kontu bat bihurtu zen, niretzat desberdina. Eta halako batean, biok altueragaitik makalaldiren bat edo beste pasatu ostean, punturik gorenera heldu ginen, Cappana Regina Marguerita mendi-aterpera (4.554 m), Europako aterperik gorenera (Alturako medikuntzako ikerketa zentroa ere bada). Goialdean tenperatura freskoa zegoen, eta elurra gogor, baina beherako bidean elurra bigun-bigun zegoen beroaren eraginez, eta oso deseroso egin zitzaigun jaitsiera. Jausi eta altxatu ibili ginen, baina elurretan min handirik ez. Gorputza ondo mailatuta heldu ginen helmugara, baina pozarren. Esperientzia zoragarria.



Ekitaldiko aurkezleak. T.A.



Ekitaldia foru-zelaian izan zen. T.A.



Abadiñoako bandera. T.A.



Jon Irazabal gogoan izan zuten ekitaldian. TXELU ANGOITIA



Nerea Mujika, oparitu zioten artelanagaz, eta bere ondoan Gotzon Gomez. T.A.



Ekitaldiak 200 bat lagun batu zituen. TXELU ANGOITIA

Gerendiaga Elkarteak 60. urteurrena ospatu zuen, izena eman zion tokian

Joan zen zapatuan Gerendiagako foru-zelaian egindako ekitaldian, elkartearen iragana errebasatu eta etorkizunari begiratu zioten, musikak, bertsoek eta dantzak lagunduta. Nerea Mujikari esker ona adierazi zioten 22 urtez presidente karguan egindako lanagaitik

J.D. ABADIÑO

Gerendiaga Elkarteak bere 60. urteurrena ospatu zuen, joan zen zapatuan, Abadiñoako Gerendiaga auzoko foru-zelaian. *Izan eta eragin* izeneko ekitaldiaren bitartez, elkartearen ibilbidea eta ekarpena gogoratu zituzten, eta, aldi berean, etorkizunari begirako mezua zabaltu zuten. Durangaldeko hainbat erakunde eta elkarte-

tako ordezkariekin batera, Gerendiaga Elkarteko bazkideak eta bidelagun asko batu ziren. 200 bat lagun elkartu ziren elkarteari izena eman zion lekuan.

Ordubete inguruko emanaldia izan zen eta elkartearen iragana eta oraina jaso zituen ikus-entzunezkoen bitartez, Durangaldeko irudiekin eta eskualdeko hainbat eragileren

lekukotzekin osatuta. Kulturaren, euskararen eta herri-gintzaren bueltan Gerendiagak urteetan egindako lana islatu zuten, hainbat formatutan: antzerkiagaz, musikagaz, bertsoetan eta dantzan.

Musikaren alorrean, Malakiasek eman zion hasiera gauari pieza bat jota, eta, ondoren, Onintza Azkaratek, Eider Gallastegik eta Joannah Keenek

osaturiko hirukoteak beste pieza bat jo zuen bertaratu zirenen gozagarri. Iruri Altzerrekak eta Unai Iturriagak bertsoetan egin zuten, eta Kariika antzerki taldeak umorez jositako esketx bat egin zuen. XIX. mendean foru-zelaian egiten ziren eskualdeko batzarak taularatu zituen, ohiko umoreagaz. Esketxak sorpresa bat zuen gordeta: Eneko Sagardey aktore ezagunak parte hartu zuen, Nerea Mujikaren semeak. Dantzak ere izan zuten bere tarteak: eskualdeko hainbat dantzarik parte hartu zuten ezpata-dantza saio batean, dantzarrien arteko elkarlana irudikatuta.

Esker ona Mujikari

22 urtez Gerendiaga Elkarteko presidente izandako Nerea Mujikari jendaurrean eskerrak emateko ere aprobetxatu zuten ekitaldia. Gotzon Gomez elkarteko presidente berriak Bittor

Arrizabalaga eskultorearen *Hitzen Txokoa* lan bildumako artelan bat oparitu zion denen izenean. Mujikaren konpromisoa eta dedikazioa goraipatu zituzten ekitaldian. Horrez gainera, Jon Irazabal ere oroitu zuten, elkarteari egin zion ekarpena eta historialariaren nortasuna gogora ekarrita.

Eskualdeko kultur eragile ugari batu zen ospakizunera, Gerendiagaren ibilbidea ospatzeko ez ezik, aurrera begirako konpromisoa berresteko ere bai. Jai giroan, baina emozioz eta aitortzaz beterik ospatu zuten urteurrena.

MUJIKARI BITTOR ARRIZABALAGA ESKULTOREAREN ARTELAN BAT OPARITU ZIOTEN



Eider Gallastegi, Onintza Azkarate eta Joannah Keen. T.A.



Durangaldeko dantzari taldea. T.A.



Arkaitz Cayado, 'Itsua'. T.A.



Gerediagako foru-zelaian baturiko lagunak. T.A.



Iruri Altzerreka, bertsotan. T.A.



Gerediaga Elkarteko kideak. T.A.



Gerediagako sortzaileak. T.A.



Karrika antzerki taldeko kideak; tartean, Eneko Sagardoy aktorea, Nerea Mujikaren semea. T.A.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 20, BARIKUA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 21, ZAPATUA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 22, DOMEKA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Ekainak 23, ASTELEHENA
09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 24, MARTITZENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 25, EGUAZTENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 26, EGUENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduraz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00ak arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Zorionak, maitia! Bizipoz horrekin jarraitzea espero dogu. Besarkada erraldoia familia osoaren partez. Maite zaitugu!



Zorionak, Aunitz! Zorionak etxeko gizontxoari! 5 urte handi! Asko maitte zaitugu! Muxurtuak.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
[gozatugozotegia](#)

Urte askotarako!

Zorionak Auritz (1025.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:
Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Zapatua, 21

Min. 17°
Max. 32°

Domeka, 22

Min. 16°
Max. 29°

UDAKO ORDUTEGIA

Ekaina

2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Urtaila

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Aburtua

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Iraila

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30

8:30-13:30
ITXITA

Urkioil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

BI-623, 48213 IZURTZA

BI-623, 48210 OTXANDIO

Okm:

batzen gaituen
distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100 €-ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zetoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novoline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100 €-ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandio Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





LAU-HORTZA

SERGIO
MURILLO CORZO

Lana, nortasuna

Ez dakit euskal herritar izateko zenbat modu dagozan... hiru milioi izan daitezke. Beharbada, gehiago, munduan zehar ere, euskal herritar lez jarduten dauanik ere badagoalako. Dana dalakoan ere, euskal nortasuna ez dau sorlekuak emoten, ezta jasotako abizenek ere.

Nortasuna munduan bizitzeko, egiteko eta ekiteko modu baten adierazten da. Pertsonen arteko harremanak ulertzeko modu baten errotzen da, baita ingurugaz eta erakundeekaz daukaguzan harremanak ulertzeko moduan ere. Munduaren ulermen horretatik eratortzen da euskal nortasuna.

Adibide asko aipatu geinkezan arren, lana nabarmentzen da gure noratasunaren gako lez. Gure komunitateagaz "lotzeko" modu askea —kontraesana emoten dauan arren— lana da, gure gaitasunak komunitatearentzat baliagarria dan zeozer sortu, zaindu edo eraldatzera bideratzea. Batzuetan enpleguaren bidez izango da, beste batzuetan boluntario lez, edota zaintzan, auzolanean... Danek ere, gure komunitateagaz lotzen gaitue, gugandik sortutako zeozer komunitateari emoten deusagualako.

Hori da euskal tradizioa zeharkatzen dauan zutabe bat: lana, pertsona komunitateagaz lotzeko bide gisa. Euskadi Barriak, eta edozein herritar barrik, ezingo dau ahaztu lanak egiten gaituela euskal herri(tar).

AKUILUA



Ezkerretik eskumara, Paul Otxoa, Asier Imaz eta Sheila Ibarra.

"Ikasteko aukera bat da taberna eramatea"

PAUL OTXOA DE ASPURU BUENO IKASLEA

Durangoko igerilekuetako taberna eramango du udan, Asier Imaz eta Sehila Ibarragaz batera. Astebete da zabaldu zutela eta lanari neurria hartzen dabilzala esan du

Aitziber Basauri DURANGO

Uda giroan sartuta, jada zabaldu dituzte igerilekuak eta bertako tabernak. Tabirako igerilekuetakoak ere hartu du bere martxa. Paul Otxoa de Aspuru (Durango, 2004) erantzun die ANBOTOren galderei. Bertartzeko gonbite zabala egin die herritarrei.

Zer dela eta hartu duzue igerilekuetako taberna?

Lehenengoz aurkeztu gara horrelako lehiaketa publiko batera. Bada, erronka txiki bat izan da. Hile hauetan lan egiteko aukera ona izan zitekeela pentsatu genuen Asierrek eta biok. Esperientzia gutxi dugu ostalaritzan, eta Sheilari gugaz lan egitea proposatu genion. Berak badu esperientzia. Astebete da taberna zabaldu dugula, eta lanari neurria hartzen

gabiltza; eskariak egiteari eta abar. Ikasteko aukera bat da taberna eramatea, gauza berri bat probatzeko aukera.

Zelan hasi duzue igerilekuetako denboraldia?

Ondo! Eguraldi onagaz hasi ginen, eta asteburuan eguraldi eskasa egin zuen arren, aste honetan egun eguzkitsuak eta beroa ditugu berriro. Geroago eta jende gehiago hurbiltzea

espero dugu. Umeek eskola izan dute eta igartzen da.

Eguraldia Damoklesen ezpata duzue. Horrek arduratu egiten zaituzte?

Eguraldiak asko eragiten du, bai. Baina ez dut horretan larregi pentsatu. Eguraldi onagaz hasi gara, gainera. Entzun dudanez, uda ona datorrigu; beraz... **Askok oporrak hartzen dituztenean, zuei lan egitea tokatuko zaizue.** Bai, baina motibatuta gaude. Egunotan, goizean zein arratsaldean etorri izan gara, egunerokoari neurria hartzeko; aurrerago txandaka aritzea pentsatu dugu. Ikusiko dugu arratsaldeetarako besteren bat hartu edo ez.

Irailean oporrak hartuko dituzue?

Ea hala den, futbola eta ikasketak hasi baino lehenago.

Igerileku zaleak zarete?

Igerileku zalea izan naiz. Orain, gurago dut hondartza.

Durangoko igerilekuetara datozenek zer topatuko dute zuenean?

Edaria, izozkiak eta litxarrerriak ez ezik, jatekoa ere eskaintzen dugu. Batez ere, errazioak eta entsaladak. Baina hanburgesak eta umeentzako askari handiak eskaintzen ere hasi gara. Horrez gainera, aurrera begira, jendea erakarri dezakeen ekintzaren bat antolatzea ere pentsatu dugu. Adibidez, herri paella bat. Eta giro ona, jakina! Gu gazteak gara eta jende gaztea ere erakarri gura dugu. Deneriko bezeroak hurbiltzera animatu gura dugu.

"EDARIA, IZOZKIAK ETA LITXARRERIAK EZ EZIK, JATEKOA ERE ESKAINTZEN DUGU"



Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:

sukia.com

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa